


# ARRASATE

sika intsumisioa eaj-pnv kirola bakardadea sexua jaiak solidaritate solda  
 zu gu ur... d... orant... rrespetua enpresa i... pirit...  
 txaketa... asi... maiz... izana emanzipazioa publiz...  
 rioneta... nofx gu zu banakoa kirola taldea itxura dirua pertsonalitate...  
 berdi... na he... ata... zizar... ren... eusko... a m... ra... ke...  
 ditu b... -ko ortz... ntia a... cuer... n k... xea sida... olen... ia politika...  
 rtxake... intsumi... ip... a n... sk... lib... k... te... bista... ora... l... nte...  
 kor d... nfor... ea eno... bi... lagn... noa bu... eta... ika... ak edon...  
 rist... a... a... ko... do... a mu... il... poli... a... o... g... d... gal... muga...  
 teresak langabez ia unibertsitatea sistema koadrila kakitzat ejerzitoa kan...  
 atzerria aberria telebista bai telebista zikinak kontrolatzen zaitu dirua...  
 ebizitza erlazio sentimentala askatasuna politika aspergarria etorkizuna...  
 ztetxea zer eusko alkartasuna lana hipokresia eskola eskolan zergatik la...  
 kardadea langabezia intransigentzia kultura zap... en du telebistak mundu...  
 stizia maitasuna taldea pertenenzia kondoa... abortoa intsumisioa kiro...  
 kulturalana ez zaitez irakurtzen nekatu arte... k... arna etxebizitza b...  
 untzak kreditu bikainak interesik altuena... i erosi erosi e...  
 rasoak etxea tristura ulertezina sour sal... itea milita...  
 artido popular soldadu... skera dirua b... dirua sex...  
 txea musika etorkizun... ernua tele... oia dirua...  
 ltura gaztetxea proble... ea bortxa... na dirua b...  
 ea mozkorra taldeka ind... ea etx... oia ametsa l...  
 oe politika maitasuna homose... tea g... tele... telebista...  
 ola unibertsitatea ordaindu... a f... iz ni teleb...  
 xebizitza emanzipazioa ekonom... ez... gunak sold...  
 ez noa langabezia dirua irteer... ura... aote tele...  
 a2 dirualangabezia etxebizitza... k... r... a... amet...  
 ua lana serbitzua elkartas na solida... te...  
 pertu telebista ikusi ezazu ent...  
 nibertsitatea heriotza urruti et...  
 ola artea lagunak taberna kultura...  
 akardadea sida sexua abortoa kotxe...  
 pokresia maitasuna tristura harreman...  
 aba ez dena irakurri hipokresia... k...  
 doia pertenenzia dirua informa...  
 linea lagunak kide mozkor fraka...  
 uruak milikk sida dirua pakea...  
 lagunak koadrila kalea taberna...  
 da lortzen autoestima dirua ex...  
 doia aurkitu roldan testu honetan...  
 da egia kontrola soldaduska intsumisi...  
 es... opa laguna diru... dirua dirua diru...  
 umisi... r... ea pasotis... e dugu aukera infor... a kult...  
 a... e... k... z... ak... telebista... ta integratu diru... ua lana...  
 a... a... o... k... a ere badi... n zuk aukeratu... angabezi...  
 militarrek sexuabortxaketa feminismoa u... sitatea etxebizi... ndia di...  
 isaria kontrakultura kirola kristaut... rlijioa rh positi... sta...  
 aduskaetxebizitza bankuak bakarda... tura laguna etxe... tele...  
 e... b... e... is... e... a telebista tele... sta tele...  
 et... l... ai... s... a... arapena dirua dirua beti di...  
 e... a... a... o... tea... i... duzu roldan segi bilatzen...  
 presari bakardadea aberastasuna kultura intsumisioa dirua etxebizitza tele...  
 omosexualitatea kondoa sida sida sid... sida sida sida sida sida...  
 angabezia lana soldaduska kalea mugimendua partaidetza politika zikina diru...  
 e... e... a... a... zen ari naiz kultura etxebizitza kadrila dirua...  
 e... e... e... e... ebizitza langabezia irua telebista sexua kondoi...  
 h... a... s... a... o... soldaduska kultura dirua entzun kredituak di...  
 garesti dago abortoa kalea taberna lagunak pertsonalitatea telebistaau...  
 garatu langabezia etxebizitza intsumisioa politika iu falta zitzaidan eta...  
 ai kultura gaztea musika integrazioa gurasoak etxea dirua lana sida teleb...  
 dirua musika kultura maitasuna ametsa mitoa 27 eromena ametsa maitasuna ba...  
 sumisioa sexualitatea drogak soldaduska etxebizitzagaztetxea langabezia...

## Mahaingurua:

# Gazte izatearen pisua



TAUN TAUNEK AURKEZTEN DU...

# MAKINATO



**Amaia Antzokian**  
**Azaroaren 12an,**  
**larunbata**  
**Gaueko 10,30etan**  
**Sarrera: 700 pta**  
**(Gazte Txartelarekin 500)**



ARRASATEKO UDALA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



# Hitz markatuak

**D**uela aste bete inguru eta aurrean Italiako bandera eta Ikurrina genituela, norbaitek zera esan zidan: "Hemen Arrasateko ikurrina falta da". Ez zen horrelako adierazpena entzuten nuen estreineko aldia eta, deformazio profesionalak eraginda agian, berehalakoan hasi nintzaion azaltzen ezin geniola Arrasateko banderari ikurrina deitu, ikurrina hitza, mugatua den zerbait izendatzeko bakarrik erabil baitaiteke, Euskalerriko bandera berezia, alegia. Ez da egoki esatea Arrasateko ikurrina, Italiako ikurrina edota piraten ikurrina, guzti horiek banderak direlako.

Hizkuntza guztietan daude, ideia edo kontzeptuen izendapen hutsak diren hitzak, generiko dei ditzakegunak edo edozein kontestutan erabil daitezkenak. Eta badira, bestalde, oinarritzko esangura neutroaz gain beste ñabardurarik ere badutenak, testu-guru berezietan soilik erabil daitezkenak eta markatutzat joko ditugunak. Ezin esan, bada, sinonimoak direnik; izan ere, ikurrina bandera bat da, baina bandera oro ez da ikurrin.

Gauza bera gertatzen da beste zenbait hitzekin ere. Umea, edozein bizidunengandik jaio dena izendatzeko hitz markagabea den moduan, haurra pertsonen umea izango da (ezin esan zaldiak haurra izan duenik, ezta txakurra haurdun dagoenik ere); era berean, kumea animalien umea izango da, hots, zerrikume, arkume, astakume...ak izango ditugu. Azken bi hauek markatuak izango dira beraz.

Ikastola, berez, azken mende laurdeneko historian gurasoek heziketa euskalduna bermatzeko sortu dituzten eskola bereziak izendatzeko hitza da. Hitz mar-


katua da beraz, eta ez da gauza bera haurrak ikastolara bidaltzea ala eskolara bidaltzea. Ezin esan dugu, bada, Lantegi-Ikastola, Alemaniako Ikastolak edota Ingelesko Ikastola; Lantegi-Eskola, Alemaniako ikastetxeak edota Ingelesko ikastegia izango ditugu behar bada, azken hauek markagabeak izanik.

Gauza bera gertatzen da dialekto hitz markagabea eta euskalki hitz markadunaren artean. Dialekto hitzak edozein hizkuntzak dituen aldaki edo eredu bereziak adierazten dituen artean, euskalki hitza euskararen aldakiei edo euskal dialektoei atxikitzen zaie soilik.

Esanahi berezia duten hitzen artean sar dezakegu honako adibide hau ere; soldadua hitza markagabea da. Garai batean soldadupean agintari baten menpe borrokatzen zutenari deitzen zitzaion horrela. Geroago, armada estatalak sortutakoan derrigorrezko bihurtu zen soldaduzka. Munduko edozein lekutako borrokalariak izendatuko ditugu era horretan: Bosniako soldaduak, ONUko soldaduak edota EEBBtako soldaduak. Gudari hitza, berriz, markatua dugu: berez, 1936ko guduan ihardun zuen soldadu aberzalea izendatzen du. Gero, bere nazioaren askatasunaren alde borrokatu duenari ere eman zaio izen hori. Baina ezin zaie aplikatu Euskalerritik kanpoko soldaduei.

Gaur egun, erderaren eraginari aurre egiteko askok dugun joera garbizalearen ondorio izan daiteke hitz hauen erabilera okerra. Hemen aipatutakook, gramatikariaren oharrengandik hurbilago dagoen batek aukeratutako adibide xume eta xehe batzuk izanik, ea denon artean saiatzen garen gure hizkuntzak dituen baliapideak balioztatu eta erabiltzen. Hala bedi!

**KARMELE PEREZ**



## • ARRASATE PRESS •

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)

Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

**Laguntzaileak:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Ixaro Zubillaga, Maider Egües, Maria Agirre. **Publizitateak:** Jaxone Mendizabal eta Ikerne Altube (77 08 15). **Administrazioak:** Agurtzane Gaintzarain eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioak:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Blanca Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agoria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miquel, Karmele Perez, Sorginak, Kopi, Daniel Gokiolea, Amaia Martiarte, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.500. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).



ARRASATE PRESek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

**Azaleko argazkia:** Mario Egües.

**GATZAGAN,  
ERDI ERDIAN...**

**ZUHAITZ  
jatetzea**




**Memesa  
79 42 22**



Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du



**Alkoholarekin arazoak dauzkazu?**

**Agian, "Alkoholiko Anonimoek" lagundu ahal dizute!!**

**Alkoholiko Anonimoak**

3. areako Informazio bulegoa (Gipuzkoa)  
Tfnoa: 61 93 38

**ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA**

**Zerbitzuak:**

- Diagnostikoa-Orientazioa
- Estimulazio goiztiarra
- Erreabilitazio funtzionala (Psikomotrizitatea eta hizkuntz bereziera)
- Logopedia
- Laguntza terapia
- Mota guztietako eskola arazoak, enuresia (Ohe bustitzea), eukopresia
- Ignazio Zuloaga kalea, 10  
Tfnoa: 79 48 77  
ARRASATE

**I  
R  
T  
A  
B  
E  
R  
N  
A**

Ferrerias kalea  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 56 11



**Maritxuko kronika**

**H**ilaren zazpitik zortzira, egun honek eman duenaren berri dakarkizuegu, presaka eta larri, erre-dakzioa itxi aurretik.

Eta ez osorik jakina, ete-nik gabeko makina bezala bidea hartuta, gaur gauean bertan ere zuen Maritxu partikularrekin eta zuen gaueko hegaldiaren lekuko isilarekin, egunkariarekin ohera sartu ahal izan zaitezten.

Eta gaurko gaua zerbait izan ez bada, horixe da hain zuzen, makina gaua. Arratsaldean bertan, ordu aldatetarekin iluntasunaren hasiera edo egunetik bihurtzen baita alderantziz begiraturaz gero, jendeak ziztu bizian irteten zuen lanetik, hurbilekoak jairako prestatuta ikustearren: Azpimarragarriena zera da, metalaren gremiokoak, (buzodunetaz ari gara) bulegari eta enpakedun gainerako lanbideetakoekin nahasten genituen gaur, aldatuta irteten zuten eta, euren traje berri eta inflamagarriarekin. Laneko

erropak asteburuan garbitzeko galtzarbean edo poltsa batean zeramatzatelako bakarrik ezagutzen genituen. Zenbat eta zenbat geratu ote dira tabernetan, sukaldeko edozein bazterretan, gertu bizi arren etxera iritsi ez direlako eta tabernari matxakek hain lagun ahaztezinaren garante eta hartzekodun egin dute.

Esan dugun moduan, Santiñari egin zitzaion bere lore eskaintza, Bautistako bere kajan, era guztietako euforiarekin egin ere, San Fermin bailitzan, uzta ona eta aurpegia garbitzeko likido arrunta mama goxo bihurtuko diguten tabernari magoak ere ez daitezela falta izan eskatuz... Umeek, urte sasoi honetan lorerik ez dagoenez, goxokiak botatzen zizkioten, nagusien eskaintzarekin bereizketa barik batze aldera.

Ondoren dena izan zen traka, elkar zoriondu beharra, argia-kolorea eta armonia: zerutik, ehun, mila, hoge mila plastikozko baso erori ziren, kolore ubel argiz

tindatuak eta kalean kristal larregi ez apurtzeko antolaitzaileek prestatuak zituztenak. Usoak joan eta etorri zebiltzan hainbeste zarata eta presarekin, azkar eta galduta hegan egiten. Kuadriletako zaharrenek puro esolak banatzen zituzten, Habanan bertan baleude bezala. Pin eta eskapularioak alde batetik bestera mugitzen ziren bizirik baleude bezala. Baserri, auzo eta bideetatik beltzez jantzitako emakumeak eta gizonezkoak erdikaldera zetozen apurka apurka: Diligentzian, oinez, autoz, nahi den moduan. Donostia, Madril, Bilbo eta Gesalibarko sarrerak gainezka zeuden: Espaloietatik ere ez zen hartzen. Portaloiko jendearen buruek ematen zuten sentsazioa, ur korrontearena zen.

Eta ez dugu gehiago luzatzerik, ordubata joko lukete eta. Pasadizo eta xelebrekerien gainean, informaturik izango zaituztegu bihar.

**JOSEBA COSTANA**

(Erredakzioan itzulia)

**HIES EKIMENA**

Astelehen, astearte eta ostiral  
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99



**Bidaiak**

Kontzeziño, 2  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 14 06

Jesus M<sup>a</sup> Bollar

**MASAIA KONTSULTA**

Eguazten arratsaldetan

**BETI-ONA**  
jimnasioan

☎: 77 00 67

# % 0,7a herrialde pobreei ematearen aldekoa zara?



**Estefania Garro**  
Etxekoandrea  
(74 urte)

Falta bazaie zergatik ez diegu %0,7a emango ba? Gu dexente ondo bizi gara.



**Jose Badiola**  
Fagorreko langilea  
(50 urte)

Ez lapurtzea da egin behar dena. %2a lapurtzea eta trukean %0,7a ematea ez zait ondo iruditzen.



**Angela Sedano**  
Etxekoandrea  
(61 urte)

Bai, entzun dut jendea akanpatuta dagoela hori eskatzeko. Nire ustez, pobreak badira eman egin behar zaie.



**Celso Roldan**  
Fagorreko langilea  
(40 urte)

Bai, %0,7aren aldekoa naiz. Europako estatuek eman behar dutenaren barruan badago hori, Espainiak ere eman beharko luke.



**Alejandra Mateo**  
Copreci-ko langilea  
(30 urte)

Bai, ados nago eta horretaz gain, laguntza gehiago emango beharko genieke. Guk geuk ideia batzuk aldatzea ere ez legoke gaizki.




**Jose Inaz9 io Jauregi**  
Langilea  
(47 urte)

Ondo iruditzen zait kopuru hori ematea, baina ez




dakit nahikoa izango ote den.  
**Esther Gonzalez**  
Administraria  
(37 urte)

Gutxienez kopuru hori eman beharko genieke, miseria izugarrian bizi dira eta. Guztion ahalegina oso ondo



etorriko litzateke.  
**Ricardo Estrella**  
Lantegi Eskolako langilea  
(27 urte)

% 0,7a bai, baina gehiago ez. Guk ere ez dugu dirua erregalatzeko moduan.



LOGOPEDIA  
ZENTRUA  
ARRASATE

HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1ª Esk.  
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

lurrindegia perfumaria  
**ZARRAOA**  
EL ARCA DE NOE

Likidazioagatik eta abenduaren 15era arte, beherapen bereziak jostailuetan.

Kanpatorpea, 4  
Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**Eritetxeak**  
 Arrasateko Eskualde-Ospit. ....79 53 00  
 Iguatorialdea .....79 05 00  
 Santa Agedako Ospitalea  
 (gizonak) .....79 39 00  
 (emakumeak) .....79 44 11  
 Buru osasunerako zentrua .....79 90 11

**Gurutze gorria**  
 Bergara .....76 55 76

**DYA**  
 Antzuola .....76 62 91

**Anbulatorioak**  
 Arrasate (Larrialdiak) .....79 13 57  
 (Txanda hartzeko).....77 03 46  
 77 07 21  
 Oñati .....78 08 52  
 Eskoriatza .....79 98 58  
 Aretxabaleta .....79 74 58  
 Aramaio .....(945) 45 51 16

**Anbulantziak**  
 Gipuzkoako anbulantziak .....45 87 44

**Udaltzaingoa**  
 Oñati .....78 04 11  
 Bergara .....76 14 69  
 Arrasate .....79 14 39  
 Aretxabaleta .....79 10 52  
 Eskoriatza .....79 03 22

**Ertzaintza**  
 Arrasate .....79 71 99

**Suhiltzaileak**  
 Udal taldea .....79 09 00  
 Udal taldeko suhiltzaile burua .....79 20 72  
 Zubillagako Eskualde-Parkea .....78 28 00

**Matxurak**  
 Urak (udal zerbitzua) .....79 09 00  
 Elektrizitatea (Iberduero) .....12 01 62  
 Gasas .....900 40 05 23  
 79 78 44  
 79 76 78

**Garraioak**  
 Taxiak .....79 12 22  
 P.E.S.A. ....79 14 19

**Hirugarren adinekoentzako zentruak**  
 Iturbide Egoitza .....79 72 11  
 Abaroa jubilatuen egoitza .....79 81 57  
**Kontsumitzailearentzako informazioa**  
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak .....79 87 77  
 KIUB-OMIC .....79 51 55  
**Monterrongo liburutegia**  
 Monterron.....77 01 05

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Ostirala 11**  
 Egunez eta gauez: Mozos. Pedro Deunaren. Bergara.  
 Gaueko 22,00ak arte: Español. Iturriotz.  
**Larunbata 12**  
 Egunez eta gauez: Camacho. Oxirondo. Bergara.  
 Gaueko 22,00ak arte: Corcuera. Musakola.  
**Igandea 13**  
 Egunez eta gauez: Camacho. Oxirondo. Bergara.  
 Gaueko 22,00ak arte: Irizar. Erguin.  
**Astelehena 14**  
 Egunez eta gauez: Puy. Barrenkale. Bergara.  
 Gaueko 22,00ak arte: Amezua. Sta Marina.  
**Asteartea 15**  
 Egunez eta gauez:Guallar. San Antonio. Bergara.  
 Gaueko 22,00ak arte: Ruiz. Maala.  
**Asteazkena 16**  
 Egunez eta gauez: Morales. San Andres.  
**Osteguna 17**  
 Egunez eta gauez: Azkoaga. Ferrerías.

**11 OSTIRALA**

**ZINEA**  
 "Forrest Gump" 7etan eta 10etan.

**INTSUMITSOEN ITXIALDIA**  
 7.30etan Intsumisoen enkartelada. Ondoren, Udaletxean Intsumisoen itxialdia, gose greban dauden intsumiso presoiei elkartasuna adierazteko.

**LITERATUR ASTEA**

Azaroaren 14tik 18ra II. literatura astea izango da Eibarren. Aste osoan zehar hainbat mahai inguru eta hitzaldi antolatu dituzte, ...eta Kittoko Literatur Bartzordeak eta Mandragora aldizkari arduradunek.

**MODA DESFILEA**

**Azaroaren 19an institutoko ikasleek antolatuta. Amaia Antzokian arratsaldeko 7etan. Sarrerak gazte bulegoan salgai. Prezioa: 350 pta.**

**III. KOMIKI LEHIAKETA**

OHO.ko 6. mailatik gorako edozeinek har dezake parte. Lan guztiak argitaragabeak eta euskaraz idatziak izan beharko dute. Lanak aurkezteko epea abenduaren 12an bukatuko da. Antolatzaileek ez dute bere gain hartzen sor daitezkeen lanen galera edo hondatzea. Lanak taldean ere aurkez daitezke. Helbide honetara bidali: JARDUN Elkarteak, Masterreka 13, behea, 20570 Bergara. Antolatzailea: Jardun.

**12 LARUNBATA**

**ZINEA**  
 "Forrest Gump" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

**MAHAI INFORMATIBOA**  
 Arrasateko Elkarrik antolatuta, mahai informatiboa, pankartak eta materiala salgai. Seberon 12 etatik 2etara eta arratsalde 6etatik 8etara.

**MANIFESTAZIOA**  
 Intsumisoen manifestazioa Herriko Plazan arratsaldeko 8etan.

**MAGIA**  
 Xixka taldearekin Magia Santamainan, goizeko 11etan.

**ANTZERKIA**  
 Taun-taun kolektiboaren "Makinatu" antzezlan Amaia antzokian, gaueko 10.30etan. Sarrera: 700 pta. Gazte txartelarekin 500.

**KOMIKI TAILERRA**  
 Komiki tailerraren hasiera, azaroko larunbat guztietan zehar iraungu du. 13 urtetik gorakoentzat izango da eta Napartheid taldeko komiki-lariak izango dira irakasle.

**KONTZERTUA**  
 Donostiako Herbatz abesbatza, Injeneru Eskolako Abesbatza, Eskoriatzako San Viator Kaperan, gaueko 10etan.

**PETRI MURILLORI OMENALDIA**  
 Eskoriatzan Petri Murillori omenaldia. 5etan Aerobic eta Karate erakusketa, Arrasateko Saioa gimnasioaren eskutik. 5.30etan saskibalo partidua; Eskoriatza eta Arrasate aurrez aurre.

**VIII ARGAZKI LEHIAKETA**

VIII. Argazki lehiaketa, Murruxiko mendizale elkarteak eta Aretxabaletako Udalak antolatuta. Nahi duten argazkizale guztiak parte har dezakete. Bi atal: A atalean gaia librea da. Modalitatea: Txuribeltzean nahiz koloretan. Lanak, autore bakoitzak lau gehienez, aurretik inon saritu gabeak. Tamaina: nahi dena, baina 30X40eko euskarrietan jarririk. B atalean gaia: "Mendia bere herapen osoan". Gainontzeko baldintzak A ataleko berberak. Lanak aurkezteko epea abenduaren bata arte.

**13 IGANDEA**

**ZINEA**  
 "Forrest Gump" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

**HAUR ZINEA**  
 "El hotel de los fantasmas" arratsaldeko 5etan Amaia antzokian. Sarrera: 200 pta.

**ARTISAU LANGINTZEN FERIXA**  
 Gatzagako frontoian Artisau Langintzen ferixa. Goizez 11etatik 2.30etara ikusgai eta arratsalde 2.30etatik 8.30etara.



**3. ADINA KOENTZAKO OPORRAK**

Gizarte-Arazoetarako Ministerioak INSERSOren bitartez 94-95 urtealdirako "Zaharrentzako oporrak" egitaraua jarri du abian. Balearsetara 15 egun azarotik apirilera 26.260 pta. Kanariar irlalara, 8 egun apiriletik maiatzara 24.400 pta. Andaluzia, Katalunia, Valentzia edo Murziara 15 egun, 22.630 pta. Kultur zirkuitoak Estatuan zehar, 6 egun 13.680 pta.

**14 ASTELEHENA****ZINEA**

"Forrest Gump" 7etan eta 9.30etan.

**DIAPPOSITIBA EMANALDIA**


Gaia: Argelia. Hizlaria: Jabier Albistur. Eskoriatzako kultur etxean arratsaldeko 7.30etan.

**BLUES BANDAREN EMANALDIA**

**Azaroaren 18an, ostirala, Bill Thomas blues bandaren emanaldia. Amaia Antzokian gaueko 10.30etan. Sarrera: 300 pta kontsumizioarekin.**

**LORAMENDI LITERATUR LEHIAKETA**

Aretxabaletako Loramendi Kultur elkarteak eta Udal euskara batzordeak VI. Loramendi literatur lehiaketa antolatuta dute. Bi sailetan banatuko da lehiaketa; poesia eta ipuina. Gaia librea da. Lanak makinaz idatzita bidali beharko dira DIN-4 neurrian. Lanak aurkezteko epea abenduaren 22an bukatuko da.

**DIAPPOSITIBA EMANALDIA**

**Aitzkorri mendilerroa neguan inguruko diapositiba emanaldia. Egileak: Batis Goikoetxea eta Migel Angel Atsoa de Alda. Azaroaren 19an, larunbata, arratsaldeko 7etan Monterronen.**

**15 ASTEARTEA****ZINEA**

"Forrest Gump" 7etan eta 9.30etan.

**PRODUKTU BIOLOGIKOEI BURUZKO HITZALDIA**

Gaiak: "Produktu biologikoen kontsumitzaileek elkartea eta Produzitzaila eta kontsumitzailearen arteko harremana". Hizlariak: Donostiako Otarra elkarte idazkaria eta Tomas Larrañaga, Biolur elkarte lehendakaria. Monterronen arratsaldeko 7etan.

**HITZALDIA**

Bilera informatiboa Euskadiko jardunaldi feministen gainean. Udaletxeko pleno aretoan, arratsaldeko 8etan. Emakumeen Asanbladak antolatuta.

**IPUIN KONTALARIA**

Pello Añorga ipuin kontalaria, Monterronen goizeko 10etan.

**DIAPPOSITIBA EMANALDIA**

Gaia: Eskalada. Hizlaria: J.R. Eskibel eskoriatzarra. Eskoriatzako Kultur Etxean arratsaldeko 7.30etan.

**16 ASTEAZKENA****IKASPILOTA TOPAKETAK**

Hitzaldia, "Pilotaren eragina gaur egungo hezkuntzan". Partaideak: Bergara II, Aitor Elkoro eta Inaxio Errandonea. Moderatzailea: Asier Mujika. Lekua Almen ikastolan arratsaldeko 3.30etan.

**HITZALDIA**

"Etxeko tratu txarren ondorio psikologikoei" buruzko hitzaldia. Hizlaria: Irene Zubizarreta, psikologian doktorea. Tokia: Udaletxeko pleno aretoan arratsaldeko 6etan. Emakumearen sailak antolatuta.

**HITZALDIA**

Aldaiko Panteoien egoera azaltzeko hitzaldia, Monterronen arratsaldeko 6.30etan.

**HITZALDIA**

Gaia: orduko errekorra; lehen hastapenak. Hizlaria: Sabino Padilla, sendagilea. Eskoriatzako Kultur Etxean arratsaldeko 7.30etan.

**17 OSTEGUNA****ZINEA**

"Las Aventuras de Priscilla" 7etan eta 9.30etan.

**ZINEA**

"Urte ilunak", Amaia antzokian gaueko 9.30etan. Sarrera: 300 pta ( gazte txartelarekin: 250 pta.)

**MAHAINGURUA**

Atxabaltako Loramendiko Berri-Zahar taldeak antolatuta. Gaia: Euskaldun berriak. Loramendiren lokalean arratsaldeko 7etan.

**IPUIN KONTAKETA**

Pello Añorga ipuin kontalaria, Eskoriatzako Kultur etxean arratsaldeko 5etan.

**IKASPILOTA TOPAKETAK**

Mahaingurua, Euskadirekin pilota mundialik bai?. Partaideak: Juan Inazio Zulaika, Mikel Uzkudun, J. Murgiondo eta Xabier Imaz. Moderatzailea: Asier Aranguren. Lekua: Monterronen arratsaldeko 7etan.

**INTSUMISOEN EKINTZAK**

Azaroaren 18an ikasleen borroka eguna zozketaren eta militar zerbitzuen kontra. 12etan ikastetxetan manifestazioa. 7etan manifestazioa herriko kaleetan zehar. Azaroaren 19an Kakitzat koordinakunde antimilitaristak antolatuta manifestazioa Donostian. Arratsaldeko 4.30etan Donostiako Bulebaretik irtegarra du. Arrasatetik autobusak izango dira.

“Euskal Herrian Euskarazen ekarpen berezia izan da norabidearen helmuga aldarrikatzea. Baliteke lehen urteetan bitartekoei gehiegi erreparatu gabe jardutea, baina azken urteotan helmugara iristeko bitartekotzat hartzen ditudan UEMA, herrietako euskara elkarteak edo Euskaldunon Egunkaria, beste batzuen artean, eraikitzen lagundu du”.

**Joxemari Mujikak** 94-XI-6

**ARGIA**

“Langileekiko harreman zabalak eta inbertsioak izan dira beti gure lehentasunak. Banaketa alaiak behar dira, esnea ematen dizun behiak pentzu ona behar du, ez altruismoagatik, berekoikeriagatik baizik. Langileak zurekin badaude bide erdia egina duzu, bestela oso gaitza da. Gure inbertsioak gutxiago izan zitezkeen eta gure dirutza handiagoa, baina guk luzera jokatu gura dugu. Ez dugu kapitalista-langile ohizko estiloa, ezta edukiko ere. (...)

Sindikatuak beharrezko ikusten ditut, sindikaturik ez balego langilea askoz ere zapalduago egongo litzateke eta. Badirudi demagogia egiten ari naizela baina, ‘nor bere ekintzen arabera ezagutuko duzue’. Nik ez ditut sindikatuak langileen alde ikusten, beren interesak defenditzen baizik. Arrasaten, adibidez, enpresa handietan bai, baina ezer gutxi egin dute txikien alde”.

**Jose Antonio Altunak** 94-X-30

**ARGIA**

“Eibarko Udal liburutegixak 16.000 liburutik gora dakaz. Gitxi gorabehera, eibartar baxotxagaitik liburu erdi dago bertan. ‘Inguruko herrixetan antzera dagoz. Dana dala, Arrasate edo Errenterixakuekin konparau ezker, alde haundixa dago, hobeto dagoz harek”.

**Eibarko liburutegiko arduradunak ...eta kitto!**

## Zertarako Arrasate Irratia?

**A**rrasate Irratia udal zerbitzu da, hau da, udalaren zerbitzu bat gehiago. Helburu garrantzitsua herritarrei informazioa euskaraz ematea da baina giza- harremanen bultzatzailea ere izan daiteke. Jendeak irratian parte har dezake bai gure ekimenez edo bururatzen zaizkion proiektuak hemen burutuz. Informazio puntuala jasotzeaz gain gainera, Arrasateko bizitzaren jarraipena egiten ere saiatuko gara.



**Nerea Zubiete**  
Irratiko arduraduna

Bestalde, abisatzeko modua ere bada. Bapatean zerbait garrantzitsua gertatu ezker, Euskadi Irratiko emanaldia eten eta informazio hori berehala emango genuke. Hori irratiaren abantaila garrantzitsua da, larrialdi batzuk herritarren eguneroko bizitzan eragina izan dezaketela kontutan izanik batez ere. Oraindik ez, baina etorkizunean, edozein gertakariren berri zuzenean emateko aukera ere izango dugu; hau da, jazotzen ari den une berean emango dugu albistea. Eta aurrerago publikitate sartzan badugu, merkatariei informazioa modu merkean banatzeko aukera emango diegu.

Esan bezala, jendearen parte hartzea ezinbestekoa da, horregatik edozein lagun edo elkarte zerbait kontatu nahi duenean, proiekturen bat duenean edo besterik barik zerbaiten inguruan jakinaren gainean jarri nahi gaituztenean, irratia jo dezakete. Kontatzeko ezer izan ez arren eta norbaitek irratia ezagutu nahi badu, lasai asko etor daiteke, irratia guztiona baita.

Oraingoz jendeak oso harrera ona erakutsi du irratiarekiko. Herritar asko hurbildu da gugana eta horrek adierazten du irratiarekiko interes handia dagoela.

# Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta Serrano Doktorea

- GENITALETAKO MINBIZIAREN PREBENTZIOA
- ANTISORKUNTZA
- MENOPAUSIA
- BULAR-PATOLOGIA
- ZIRUGIA

- HAURDUNALDIA
- JAIKO AURREKO DIAGNOSTIKOA
- ANTZUTZE KIRURGIKOA
- ANTZUTASUNA
- GINEKOLOGIA PSIKOSOMATIKOA

Prezio bereziak 25 urtez beherako, etxeoandre eta 3. adinakoentzat  
(Lagun-Aro Asegurua, igualatorio mediko-kirurgikoa,...)


**SAN MARTIN OSASUNDEGIA**

Ramon M<sup>a</sup> Lili, 2 (Lasa jatetxea izandakoaren atzekaldean) ☎: 76 59 39 / 76 59 72 FAX: 76 25 72 BERGARA



**Hilik aurkitu**

Ostegun gauean, A.V.C. inzialdun gizonezkoa hilik aurkitu zuten Ferrerías kaleko 36. zenbakiko etxebizitza batean. Herritar bat joan zen Ertzaindegira gizon horren heriotzaren abisua ematera. Mediku forensea, epailea eta idazkaria bertaratu eta gorpua jaso ondoren Zumarragako eritxetxera eraman zuten autopsia egiteko.

**Istripu ikusgarria**

Joan den ostiralean istripu ikusgarria gertatu zen Juan Karlos Guerra kaleko Okoretégi tabernan. Arratsaldeko 4ak aldera, San Frantzisko kalean obretan zebilen kamioi bat aldapan behera abiatu eta Okoretégi tabernako horman sartuta geratu zen. Itxura denez, eskuko freno a eman gabe zeukan kamioiak. Taberna barrua zeudenak susto galanta hartu arren, zorionez ez zizaion inori ezer gertatu. Taberna eskonbroz beterik geratu arren, etxearen egiturak ere ez zuten kalterik izan, udaletxeko arduradunen esanetan.

**VIII. Famili-Astea**

Gipuzkoako Elizbarrutiak, Teologia eta Pastoral Ikastetxearekin bat eginik, VIII. Famili-Astea ospatu du, aurten lehen aldiz Arrasaten. Familian izan ohi diren aldaketek familiaren bizitzan zelako eragina duten eta baloreen eskola gisa familiak nolako garrantzia duen izan dira besteak beste, astelehenetik asteazkenera bitartean San Viatorren aztertutako gaiak.

**Sutea**

Domekan arratsaldeko 8ak aldera, paper bat sutan

bota zuen norbaitek San Andreseko maiatzaren bata plazako kontenedore batetara. Kontenedorea Mankomunitateak papera birziklatzeko erabiltzen dituen horietakoa zen. Zubillagako suhiltzaileak etorri behar izan zuten sua itzaltzera.

elkarteko eguna ospatu zuen joan den larunbatean. Ekintzak eguerdian hasi ziren presidentearen agurrarekin eta ondoren luntxa izan zen. Arratsaldean, berriz, abesbatz, dantzaldi, akordeoi emanaldi eta flamenkoaren txanda izan zen. Jaiak goizalderarte iraun zuen, afariaren ostean dantzaldia izan zen eta. Aurtengoa jaia ospatu duten laugarren aldia izan da.

**Corazón De Encina eguna**

Corazón De Encinak

**"Iberian Brass" taldearen kontzertua**

Domeka eguerdian "Iberian Brass" izeneko tronboien laukoteak kontzertua eskeini zuen Amaia antzokian. Orbubeteko saioa eskeini zuen laukoteak eta eguerdia izateko nahiko jende hurbildu zen antzokira. Alberto Urretxo mondrauetarrak eta beste tronboijole atzeritarrek osatzen dute taldea.

**JAIOTZAK**

- Jon Otxoa Arana. Urriaren 31ean.
- Paula Montiano Zubizarreta. 31ean.
- Adrian Gaznateo Ignacio. 29an.

**EZKONTZAK**

- Antonio Gomez Gonzalez & Maria Dolores Conde Rivas. Urriaren 22an. Elizaz.
- Agusiñ Arregi Lizundia & Maria Teresa Rodriguez Narros. 23an. Elizaz.

**HILDAKOAK**

- Seberiano Rastrilla Palazin. Urriaren 22an. 86 urte.
- Antonio Pazos Lopez. 21ean. 46 urte.
- Martina Iraegi Arana. 22an. 86 urte.
- Maria Ugarte Eguren. 24an. 75 urte.
- Marta Murga Minondo. 25ean. 88 urte.
- Juana Luisa Leunda Leunda. Azaroaren 2an. 66 urte.



**Elena**

Bizkaia Etorbidea, 1 etxeba Tfnua: 77 14 24

**Baster-alde**




**Jatetxea**

**Denboraldiko platerak, giro onenean**

Galartza auzoa

ARETXABALETA

Tfnua: (943) 79 24 58



JUAN JOSE GOENAGA \*

## Emakumea eta fede transmisioa

**Emakumearen** figura aldatzen ari da azken urte luzeetan. Industrializazio garaitik Europan, eta Bigarren Gerra Mundialaren ondoren gure artean. Inor gutxi daki nolako izango den geroko emakumea eta honen ondorioz, gizonezkoa, eta bien arteko harremanak. Hau dena oso loturik dago nolako izango den haren presentzia soziala eta egitekoarekin.

Estatu Batuatan nobilela Regan garaian nere inguruko gizonezko askori entzuten nion etzutela asmatzen beraien joerak eta portaerak "reziklatzen" emakumeek hartzen ari ziren figura sozial eta rol sozial berriei moldatzeko. Ez ahaztu garai hura zela "Yuppi" gizaldira. Badirudi han ere gauzak aldatu egin direla ordutik.

Dena dela, geroak esango du nolako "emakume figura edo figurak" sortzen joango zaizkigun.

Nik hemen beste arazo bati heldu nahi nioke; gutxitan aipatzen den eta inportantea eta esanahi haundikoa derizkiodana: Emakumea eta Fede transmisioa.

Historigileen artean ez dago dudarik familia giroa izan dela Kristau Fedea gizaldiz gizaldi transmititzeko bide berezieta eta maiz, bide bakarra. Eta ahoz-ahoz transmititu

ere.

Hamaseigarren gizaldi arte, ez zen sortu Eliza Katolikoan Parrokietako Katekesiarik. Gurasoek Elizan entzuten zutena, beraien galbahetik pasatuz, ematen zien seme-alabei etxeko sukalde bazterrean.

Familia izan da historian zehar haurra sozializatzeo lekune bakarrenetakoa eta pribilegiatuena. Giro horretan jasotzen zuen haurrak gizaldietan zetorren jakinduria eta Jainkoaganako Fedea. Belaundaldien lotura ere etxean egin ohi zen.

Orain guraso diren Arrasateko jende gehienek familian ikasi zuten otoitz egiten, Jainkoaren aurpegia, alditan zakar xamarra zen aurpegia, "sentitzen", lagun hurkoa maitatzen eta giza bidezko arrastorik nagusienak han jasoak dituzte.

Eta familia horretan emakume baten figura zegoen, amarena, alegia. Onerako eta txarrerako gure euskal kulturaren ama izan da (emakumea), etxeraren ardatz, haserre alditan kontsola leku, pozaldietan alaitasuna jartzen zekiena. Haurraren pertsonalitatea estrukturatzen joan dena sakonki.

Eta emakume honek lana egiten zuen, askotan senarraren ondoan, emaztea etxerako dirubide izanik: Orain "economía

sumergida" deituko geniokeen lana egiñaz.

Familia eskema hau hondatu egin da. Onerako eta txarrerako.

- Familian ez da ama, baizik Telebista etxeko "intelektuala". Honi entzuten die seme-alabek, eta kaso egiten. Aparailu hori da sentimenduen eta pentsamenduen iturri apartekoa.

- Urte batzuk besterik ez dira, jadanik bueltan gaude, umearentzat lekurik ederrena "haurtzaindegia" zela esaten zena, eta, hareago oraindik, familia estruktura propietate pribatuaren ondoren soziala zela.

Azkenaldi honetan, eta batzuztat, Neo-konserbadurismoaren aideak eraginik, beste bide batzuk urratzen hasiak direla ematen du familia asko:

- Gurasoek haurrak etxean nahi dituzte beraien ondoan, eta ez amonaren kargu edota ordaindutako neskatzaren baten esku.

- Lana kanpoan eta seme-alaben zaintza, ahalik eta ondoren nola konpondu saiatzen direnak.

- Konturatzen ari dira haurra ez dagoela hala moduz inoren eskuetan uzterik, eta gurasoen betebeharrak eta satisfazio-iturri dela haurraren ondoan egotea eta bera hazten joatea.

Badirudi familiaren esanahia eta esperientzia berritzen ari direla postmodernismoaren eskutik.

Nola izan familia eta ez telebista, paretan dagoen aparailu hori, belaunaldi berrien oinarritzeko hezitzaile, baloreak transmititzeko lekune berezia; kristau direnentzat otoitz egiten ikasteko lekua eta lagun hurkoa maitatzen ikasteko toki.

Hortarako guraso askok lotsak alde batera utzi, eta serio hartu beharko luteke famili-giroa dela, eta ez haurtzaindegia edota eskola, pertsonalitatearen estrukturatzaile sakonena eta baita Fede hezigune inportante-na ere.

\* APAIZA

## USTEAK USTE

### UNIBERTSITATEA

**la ikasturtearekin batera hasi dira protestak EHU-n, eta ez da gutxiagorako. Matrikultatzerakoan zeure ikasketak euskaraz egiteko aukera eskeintzen badizute, eta eskubide osoz horrela aukeratu ondoren ezinezkoa dela esaten badizute, zer espero dezakegu?**

**Eskolaurretik hasita ikasprozesu osoa euskara hutsean garatu duten gazteak non geratzen dira Unibertsitatean helderakoan? Erreziklai ikastaro bat egin beharko dute jasotako kontzeptu guztiak erdararatzeko? Euskaraz irakatsiko duen euskal irakasleogarik eza omen da arazoa (aitzakia?). Ulertuko nuke Unibertsitate hau sortu berria balitz. Baina ez da kasua. Azken hamar urte hauetan lortu ez badu bere irakasleogoa euskaraz iharduteko gai izatea, ez bada gauza izan bertatik irakasleogoa propioa sorraratzeko, eta urtero irakasleogorik ezaren lelo berarekin erantzuten bazaie ikasleen (eta euskararen) beharrei, pentsatu behar dugu arazoa ez dela teknikoak soilik, hori baino sakonagoa baizik.**

**Aide batetik, esango nuke nik, gaur egun dagoen irakasleogoa euskalduntzeko edo alfabetatzeko borondate eza, eta kontratazio arazoa bestetik, hau da, zeintzuk izan beharko lirarteke irakasleogoa berria kontratatzerakoan lehentasunak markatuko lituzkeen irizpideak benetako Euskal Unibertsitate gaiztazera bideratuta doazenak edo kontratazio sistema arrotz batek inposatzen dituztenak, eta Euskal Herriaren beharrei ez diona inolaz ere erantzuten? Dena dela, badu EHU-n nahiko autonomia guzti hori lortzeko? Hor dago kokka!**


\* AMAIA JAUREGI-ARRABURU

ELEKTRONIKA  
ARTIKULUEN  
SALMENTA

BAZAR  
TOKI ON

J. Carlos Guerra, 1 Tfnua: 79 91 64 ARRASATE

Elektroinjekzio  
Zerbitzua



## ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnua: 79 95 41

ARRASATE



David Zapirain pasaiarrak eta Juan Carlos Mora donostiarrak aztertu dute XVI. mendeko Arrasate.

## XVI. mendeko Arrasate ikertzen duen lana aurkeztu dute

XVI. mendeko Arrasate gaitzat harturik, David Zapirain eta Juan Carlos Mora historialariek egin duten lana aurkeztu zen asteazkenean. Lan hori egiteko, Arrasateko Udalak 750.000 ptako dirulaguntza eman die Jose Letona bekaren barruan eta 10 hilabete epean burutu dute ikerketa. Batez ere, Arrasateko artxibategiko eta Tolosan dagoen Gipuzkoako Agiritegi Orokorreko dokumentuak aztertu dituzte bi historialariek baina Jose Angel Achón doktoreak tesia egiteko erabili dituen Esteban de Garibairen oroitzenetatik ere, hainbat informazio atera dute. Izan ere Zapirain eta Morak egindako lanaren zuzendaria Achón izan da, beronek XV. mende bukaeran eta XVI. mende hasieran Gipuzkoan eta zehazkiago Arrasaten kontzejuek hartu zuten indarrari buruzko tesia bukatu du eta.

Boterearen antolaketa eta erabilera abiapuntutzat harturik abiatzen da ikerketa. Jauntxoaren boterea (bandoena) ahultzeko, Udal Kontzejua eratu zen XVI. mendean. Erakunde horretan hiribarruan bizi zirenak

eta nekazariak biltzen ziren herriko bizimodua antolatzeko. Udal Kontzejuko ordezkariak urtero aukeratzen ziren San Migel eguneko meza nagusian. Garai hartan familiak garrantzia handia zuenez, gai horri ere lanaren zati bat eskaini diote. Boterea zuten familien inguruko bizimodua ikertzeaz gain, etxeko jaunak zuen indarra ere isladatzen da lanean. Hala ere historialariek garbi utzi zuten garai hartakoak desberdinak zirela: "XVI. mendeko familiak zabalak izaten ziren eta ezkontzatik kanpo seme-alabak izatea ondo ikusia zegoen". Horretaz gain, ekonomia, eguneroko bizimodua, ohiturak eta garai hartako bitxikeriak ere jasotzen dira ikerketa horretan.

240 orri inguruko lanaren kopiak, Udalteko artxibategian eta Monterongo liburutegian izango dira eta dokumentu guztiak gaztelaraz idatziak daudenez, ikerketaren zati handiena ere gaztelaraz idatzita dago, hasierako laburpena izan ezik. Baliteke aurrerago lanaren laburpen modura liburua argitaratzea.

### XVI. mendeko istorioak

- Zapirain eta Morak azaldu moduan XVI. mendean gai serioak zirenak baina gaur egun barregura eragin diezaguket hainbat bitxikeria jaso dituzte euren lanean.

1612an, adibidez, Pedro Fernandez de Zarea Bolibar-en alabak, Maria Andresek, komentura ihes egin zuen gurasoek gustoko ez zuen mutil batekin ezkontzea agindu ziotelako eta berak, beste gazte bat zuen gustoko. Komentuan zegoela, gustoko mutila joan eta iskribauaren aurrean ezkondu egin ziren. Ondoren iskribaua gurasoengana joan ei zen baina hauek harrika hartu zuten iskribaua eta hori gutxi ez bazen, aita, alkatea eta beste herritar batzuk aizkora hartu eta komentuko atea botatzen saiatu ziren. Hori ikusita, abadesak atera ireki eta alaba eman zion aitari eta hark Alcalá de Henareseko komentu batetara eraman zuen alaba.

Bi historialariek esan bezala, garai hartan pentsatzeko era desberdina zuten eta garrantzitsuagoa zen ohorea edukitzea diruduna izatea baino. Horregatik, dirua eduki bezain laster, ez zuten ekonomian inbertitzen eta boterea eta prestigioa eskuratzeko erabiltzen zuten dirua.

**Altzariak  
Diseinua  
Apainketa**

**M  
ARENAZA**

Bizkai, 1 ARETXABALETA  
Tfnoa: 79 08 07

**FELIPE  
MADINA**


**ZURAK**

Zarugalde, 40 ARRASATE  
Tfnoa: 79 13 78

**EsLu**

**ileapaindegia**

Tfnoa: 79 37 88  
ARRASATE



Lau urteko lanaren ondoren, "Bus Fagor" izeneko sarea garatu du Fagorrek.

## Fagor: Etorkizuneko "sukalde jakintsuak"

Fagor elektratresnak-ek garatu duen "Bus Fagor" izeneko sare informatikoari esker, urte gutxi barru sukaldeko elektratresnak lanean jartzeko ez da beharrezkoa izango etxean egotea eta ezustekoren bat gertatuko balitz, (ur isurketa, adibidez) horren berri izango genuke etxetik kanpo egon arren. Sare hori izateko gainera, ez da kable berririk ipini behar, etxeetan dagoen 220 V.tako elektrairadarraren kableria aprobeztatzuz jarriko dira eta elektratresnak elkarrekin harremanetan. Sukaldean izango den unitate zentral batetik aparailu guztiak kontrolatu ahal izango ditugu eta modem telefonikoaren bidez, berriz, aginduak kanpotik emateko aukera izango da.

Fagor orain dela lau urte hasi zen Domoitikaren, hau da, elektratresnen informatizazio eta automatizazioaren alorrean lan egiten. "Chimene" izeneko programa europarraren barruan eta hiru enpresarekin elkarlanean, etxea automatizatzeko bideak urratu dira eta denbora gutxi barru saiakuntza batzuk egingo dira Portugal, Bartzelona eta Frantziako etxe batzutan, bertan bizi direnek sukalde horien arazo eta abantailak ikus ditzaten. "Sukalde jakintsuen" merkaturatzea urte batzuk barru etorriko bada ere, datorren urtean izango dugu merkatuan domotikaren adibiderik. 95ean urrutiko managailu bidez kontrolatuko diren galdarak jarriko ditu salgai Fagorrek.

## S.F.Xeko liburua


25. urteurreneko liburua jasotzeko, Ferixalekutik pasatzeko gonbitea luzatzen die S.F.X ikastolak ikasle ohiei.

## Fagor, Bergararik Garagartzara

Fagorrek Bergaran zuen lantegia dagoeneko Garagartzara ekarri dute. Hemendik aurrera, Fagor markako ontzigarbigailuak Garagartzan egingo dira. Leku aldaketa honekin zerbitzu generaletako gastuak gutxitu eta Garagartzan sukaldeek utzitako hutsunea bete nahi dira. Horretarako 200 milioi inbertitu ditu Fagor Elektratresnak kooperatibak. Urtean 85.000 ontzigarbigailu egitea aurrirakusten da.

## CCOOren salaketa

Arrasateko CCOOek idatzia bidali du Gipuzkoako lan eta gizarte segurantzaren ikuskaritzara Gelma enpresak 20 langileri egin dien kontratua ilegala dela salatzen. CCOOren ustez, aprendiz kontratua ez da legezkoa.



LEKUA: Monterron Jauregia ORDUA: Arratsaldeko 7etan

## MAHAI INGURUA

Euskadirekin pilota mundialik bai?

azaroak 17 osteguna

PARTAIDEAK:

- Juan Inazio Zulaika (pilotariohia - idazlea)
- Mikel Uzkudun (xareko pilotaria - Kazetaria)
- J. Murgiondo (Euskal Pilota Federazioko Lehendakari ohia)
- Xabier Imaz (Afizionatuen arteko Munduko Txapelduna)

MODERATAZILEA:

Asier Aranguren (ETBko kazetaria)



# 1.500 lagunek ikusi dute plan orokorraren aurrerapena

Urriaren 17an erakusketa zabaldu zenetik orain arte, 1.500 lagun hurbildu dira Harresi Aretora Udal Egitamua orokorraren aurrerapenaren berri jasotzera. Kontxi Malet, erakusketan izan den arduradunaren ustez "jende mugimendu polita izan da baina Arrasaten 8.000 etxebizitza daudela kontutan izanik, jende gehiago etortzea espero genuen". Maletrek adierazi duenez, adin desberdineko jendeak bisitatu du erakusketa eta batez ere arratsaldean izan da mugimendu handiena. Aldez aurretik zita zutenak eta zerbait konkretua jakin nahi zutenak hurbildu dira goizez.

Jendearen harreta erakarri duten gaiak dagokienez arduradunak esan bezala, Uribi-



Hilaren 18 arte izango da zabalik erakusketa.

rritik Takolora bitartean egitea aurrirakosten den tunela nondik nora joango den eta noiz egingo den jakin nahi izan du jendeak. Bestalde, egingo diren etxe berriak non eraikiko diren edo norbera bizi den esparruan zer eraiki-

ko den jakin nahi izan da. Era berean hainbat kezka ere isladatu dituzte mondrauetarrek erakusketara hurbildu direnean. Batzuen ustez, etxe larregi eraikitzen dira eremu txikiegian; horregatik etxeen inguruan lursail zabalagoak

uztea eskatu dute. Baina egitamu orokorra ikustera joateaz gain, izan da argazki eta guzti mende hasierako Arrasate zelako zen erakustera joan denik ere. Kontxik esan bezala "erakusteaz gain ikasteko parada ere izan dugu".

Udal Egitamua Orokorraren erakusketa hilaren 18ra arte izango da zabalik. Goizez 11etatik ordu bata arte eta arratsaldean 6etatik 8etara. Baina astebukaeran ere izango da 2.004 urteko Arrasate zelakoa izango den ikusteko aukerarik. Zapatu-domekan 12etatik ordubiak arte eta arratsaldeko 6etatik 8etara. Lehengo, oraingo eta etorkizuneko Arrasateren plano, informazio panelak eta argazkiak daude ikusgai erakusketan.

## Argazkigintza Ikastaroa

Sakontze maila - (errebelatua koloretan)

**Benito Cantero, Pol-Pol Argazki Taldeko kidearen eskutik**

**Ikastaro egunak:** azaroak 21, 24, 28, 30

abenduak 1, 12, 13, 14, 19, 20

**Ordutegia:** Arratsaldeko 7etatik 9etara

**Matrikula:** 3.000 PTA / 1.500 PTA ikasle eta langabetuentzat

**Izen emateak:** Gazte Bulegoan. ☎ : 77 00 65

### PLAZA MUGATUAK



**Quinta PARED**

**PRESENCIA**  
La Paz, domingo 21 de agosto de 1994

**Nº 79**  
Del 21 al 27 de agosto de 1994

**LINEA ATB**

Llame a  
**LINEA ATB**  
al 358628

*Denunciando  
Ud. puede ayudar*

ATB telebista eta Mondragon herria Eukal Herrian bakarrik dagoela uste duzuenok oker zabiltzate. ATB ez da gure telebistaren izena bakarrik, Bolivian ere ATB izeneko telebista dago. ATB nahiko telebista garrantzitsua da Bolivian eta kate honek era berezian lan-tzen ditu kirolak. Gainera "Linea ATB" izenaz telefono bat dauka. Bertan, herritarrek zalaketak egin ditzakete eta erantzunak jaso. ATBz gain, Mondragón izenako herri txiki bat ere badago Bolivia-ko Potosi herriaren inguruan. Guz-ti honen berri Julen Alexola-leibak eman digu, oporretan Bolivia alde-an izan eta berri bitxi hauek ekarri dizkigu eta.

Non dago San Andreseko parkea? Non daude bertan zeuden zuhaitzak eta jolas tokiak? Une honetan eskabadorak besterik ez dira ikusten. Baina laster plaza dotorea jarriko dute bertan: jardinak, umeek jolasteko tokia, zuhaitzak denetik izango du plaza berriak.



**"PAL"**

**burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria**

Uribarri etorbidea 3,  
Tfnoa: 79 31 99

**Monte  
taberna**

Maalako arrabala, 11  
Tfnoa: 79 20 56

**GORKA**  
ILEAPAINDEGIA

**SOLARIUMA**  
Ferrerias, 35 ARRASATE  
Tfnoa: 77 13 78

**IBARRA  
Garajea S.L.**



**EBRO  
NISSAN**

*Garajea  
Automobil-konponketa  
Garabi zerbitzua*



Urriaren azken astean Aramaioko mendietan aurkitutako onddoa duzue argazkian. Onddo zuri honek 900 gramo

eta 24 zentimetrotako altzada zituen eta **Joxepa Elortzak** aurkitu zuen. Onddoak ikusgai egon da Dukiena

jatetxean, Aramaion, eta ikusi dutenen harridura eta bizi guztiko onddo-batzaileen komentario biziak sortu zituen.



**Josu Mendieta** eta

**Arritxu Altuna**

atxabaltarrak maiatzaren 14an ezkondu ziren. Meza Azatzako elizan izan zuten eta bazkaria Taberna-Berri jatetxean. Ezkon bidaian Indonesian egon dira. Zorionak!

## IZEN PROPIOAK

● **Andoni Urzelai**, 27 urteko atxabaltarra, Asegarceko produktoran hasi da lanean. Asegarcek produzi-tzen duen "Bricomania" saio-an errealizatzaile lanak bete-ko ditu Andonik. Orain arte, ATBko arduraduna izan da. Une honetan **Lutxi Arregi** dugu ATBko arduradun.

● **Mila Loidi** 35 urteko bergararra, Fagor industrial-eko zuzendaria izango da. Orain arte Fagor Elektrotres-nak-eko Haltzaritegiko Per-tsonal burua izan da. Erizain-tza ikasi zuen Madrilen eta Psikologia ikasten ari da.

● **Jesus Amasene**, azken hiru urte hauetan Tailandian Fagor Elektronikak duen lan-tegian lanean ibili ondoren, etxera itzuli da. Aurrerantze-an Fagor Elektratresna eta Elektronikako Osagarrien Ataleko Zuzendari Indus-triala izango da.

**ITSASKI**  
ARRANDEGIA

Arrain freskoa  
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 98 94

**URRATS**  
AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3  
Tfnoa: 79 87 74  
ARRASATE



PEUGEOT

Salmenta eta  
zerbitzua





**IBABE**  
**GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

# EUSKARAREN ERABILPENA HAUTESKUNDE AUTONOMIKOETARAKO KANPAINAN ARRASATEN

AED Elkarteak beste kanpainen bezala, hauteskunde autonomikoetan ere neurtu egin du alderdi politiko bakoitzak zenbat euskara erabili duen. Hona hemen emaitzak:



OHARRA: Egin duten hirurek ARRASATE PRESS-en bakarrik egin dute.

● Ez dute egin / Ez dute bidali

## AZALPENA

Kaleko publizitatearen kasuan publizitate hesiak, kaleko kartelak eta pankartak neurtzen dira, hirurekin batuz bestekoa ateratzen dugularik. Horrela, datu deigarri batekin egiten dugu topo: PSE-EEren gorakada nabarmena arlo honi dagokionean. Hesi bat jarri zuten, euskaraz, eta kaleko kartelak elebidunak ziren. Neurketa egiterakoan kartel motak izan ditugu kontutan: euskaraz ala erdaraz ateraren diren eta ez ateraren diren kartelen kopurua. Etxez etxeko orriak neurtzeko orduan, berri, gutunak, triptikoak eta bestelako euskarriak izan dira kontutan hartu ohi ditugun kontzeptuak; beste kasuan bezala batuz bestekoa egin dugu hirurokin.

Beste datu aipagarria eta pozgarria herrian egin diren bi mitinak euskara hutsean izan direla da.

Nahiz eta orokorrean alderdi guztiek aurrera egin duten, PPK oraindik gehiengoa erdara hutsean egin du, besteengandik oso urruti geratzen delarik. Azken hauteskunde kanpainarekin konparatuz geru (Hauteskunde Nagusiak, 93-VI-6) nabari da euskararen erabilpena zerbait areagotu dela. Dena den, oraindik badugu zer egin.

Ea bide horretan jarraitzen dugun!

EUSKARAZ BIZI



EUSKARAZ BIZI



Futbito 94-95

ZALDIBARKO  
ZALDIBARKO  
Txapelketa

Babesleak: JMA, Kajoj taberna eta Arrasate Kirolak



Gaizka

## Epaileak negargarri

Zaldibarko txapelketako 5. jardunaldia jokatu da dagoeneko, eta epaileak bihurtu zaizkigu protagonista. Protagonista, baina ez egiten ari diren lan bikainagatik. Partiduak epaitzeko orduan ez dute inolako arretarik ipintzen eta egiten duten onena partiduko hasiera eta bukarrera pitatzea ei da. Ez zaie asko eskatzen, baina oraindik gutxiago egiten dute eurek. Epaileen lana arazo bihurtzen hasi da eta horregatik antolatzaileek abisua luzatu nahi die guztiei. Hemendik aurrera epaile jaunek euren jarrera aldatzen ez

badute, beste neurri batzuk hartu beharrean aurkituko dira antolakuntzakoak. Espero dezagun horretaraino ez heltzea!

Bestalde, Zaldibarko sarreran dagoen txirristan jarrita egotea debekata dagoela ere aipatu nahi dugu. Bertan eserita egoten direnek behin baino gehiagotan jokua eragozten dutelako etorri da debekua. Izan ere, arrazoi horregatik talde desberdinekin arazoak izaten dituzte antolakuntzakoek. Hori guztia gerta ez dadin, beste txoko bat aurkitu beharko dugu jarrita egoteko.



**Felipe**  
**Arrizabalaga**  
**AROSZTEGIA**

- SUKALDE-ALTZARIAK
- SARRERAKO ETA BARRURAKO ATEAK
- ARMAIRU ENPOTRATUAK ATE KORRIGARRIEKIN

Legarre pabiloia, ARRASATE Tfnoa: 79 22 76

**A** taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
BUKANAK	5	5	0	0	23	12	<b>10</b>
C. LENIZ	5	4	0	1	26	8	<b>8</b>
SALENKO K	5	4	0	1	29	12	<b>8</b>
ZULOAK	5	3	2	0	21	14	<b>8</b>
HIREI	5	3	1	1	37	17	<b>7</b>
FOSFOROS	5	3	0	2	17	9	<b>6</b>
ZOTZ	5	2	2	1	12	10	<b>6</b>
ARRASATE K	5	2	2	1	22	18	<b>6</b>
ADELAIDA H	5	2	2	1	16	14	<b>6</b>
LOS DALTON	5	3	0	2	21	21	<b>6</b>
KRISKIBALDA	5	3	0	2	14	17	<b>6</b>
FRAGUEL GOL	5	2	1	2	15	15	<b>5</b>
EZTANDA	5	1	3	1	16	28	<b>5</b>
GANBELAS	5	1	2	2	15	12	<b>4</b>
ATERPE	5	1	1	3	14	18	<b>3</b>
ASTOEN BILA	5	1	1	3	23	27	<b>3</b>
STRAUSS	5	1	0	4	16	23	<b>2</b>
BAYER LE.	5	0	1	4	11	28	<b>1</b>
INSERT COIN	5	0	0	5	9	27	<b>0</b>
ILUNA TAB.	5	0	0	5	7	32	<b>0</b>

**B** taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
TRIKITI	5	5	0	0	28	6	<b>10</b>
S. UGARTE	5	3	2	0	27	9	<b>8</b>
TXEYENEX	5	4	0	1	30	10	<b>8</b>
UGLYS	5	3	2	0	36	13	<b>8</b>
PEPELUS	5	4	0	1	28	12	<b>8</b>
LOS DIMY	5	3	1	1	33	14	<b>7</b>
NUEBO T.	5	3	1	1	22	14	<b>7</b>
BERANGO S.	5	3	0	2	13	14	<b>6</b>
TOTEM	5	2	1	2	22	14	<b>5</b>
PETROLEROS	5	2	1	2	18	14	<b>5</b>
ANBOTOSTE	5	2	1	2	17	20	<b>5</b>
NO COMENT	5	2	1	2	15	26	<b>5</b>
PUB PEOPLE	5	2	0	3	18	30	<b>4</b>
DANOK L.	5	0	3	2	15	10	<b>3</b>
MONTERREY	5	1	1	3	14	26	<b>3</b>
ARRASATE Z	5	1	1	3	14	28	<b>3</b>
EZKIÑAKO	5	1	1	3	9	22	<b>3</b>
TOVARITX	5	1	0	4	7	27	<b>2</b>
ORKATZ	5	0	0	5	10	32	<b>0</b>
LA BANDA	5	0	0	5	11	40	<b>0</b>

**C** taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
IRATI STS	5	5	0	0	30	7	<b>10</b>
EQUUS	5	5	0	0	31	9	<b>10</b>
LORATEGI	5	4	0	1	17	10	<b>8</b>
A. MURU	5	4	0	1	23	8	<b>8</b>
KOKA JUNIOR	5	3	1	1	14	11	<b>7</b>
ESC. LETE	5	3	0	2	16	8	<b>6</b>
ORLANDO P	5	3	0	2	20	12	<b>6</b>
PERRAHOTSA	5	3	0	2	16	13	<b>6</b>
NABARROS	5	3	0	2	21	10	<b>6</b>
FRANTZISK	5	3	0	2	17	16	<b>6</b>
KE OXTIAS	5	3	0	2	23	22	<b>6</b>
ARTZANKOS	5	2	0	3	14	19	<b>4</b>
BODISCA	5	2	0	3	15	21	<b>4</b>
BANEUKO	5	1	1	3	7	11	<b>3</b>
JOTAKABAU	5	0	3	2	12	22	<b>3</b>
F. IMAGEN	5	0	2	3	17	23	<b>2</b>
POTROSORRI	5	1	0	4	15	29	<b>2</b>
LEYA	5	1	0	4	14	29	<b>2</b>
TXOKO T	5	0	1	4	5	27	<b>1</b>
D.K.B	5	0	0	5	10	24	<b>0</b>

**D** taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ARGI IBILI	5	5	0	0	32	8	<b>10</b>
MSM	5	4	0	1	27	8	<b>8</b>
SURCOS	5	4	0	1	31	14	<b>8</b>
OJO AVISORE	5	4	0	1	24	12	<b>8</b>
MIKELOS	5	4	0	1	29	15	<b>8</b>
D.A.IRIZTU	5	3	1	1	28	15	<b>7</b>
ALTZA PORRU	5	3	0	2	14	9	<b>6</b>
KAKAJAURI	5	3	0	2	22	15	<b>6</b>
LAUTHERB	5	3	0	2	23	21	<b>6</b>
ANORTHOSIS	5	3	0	2	16	16	<b>6</b>
LOS HEREDIA	5	3	0	2	17	21	<b>6</b>
BORROCK'N	5	2	1	2	19	18	<b>5</b>
B.Z SISTEMA	5	2	1	2	11	13	<b>5</b>
SOKOAKOAK	5	1	2	2	10	19	<b>4</b>
MOTZ	5	1	1	3	20	17	<b>3</b>
SUKAR	5	1	0	4	13	26	<b>2</b>
TRONKOTEAK	5	0	2	3	17	32	<b>2</b>
ELISABETH	5	0	0	5	7	23	<b>0</b>
RESAKAS	5	0	0	5	9	36	<b>0</b>
TEODOLITO	5	0	0	5	7	36	<b>0</b>



**URONDO**  
elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE



**Partidu batzuk gomen-  
datu behar dizkizuegu  
6. jardunaldirako.  
Larunbatean 9etan  
Lorategi Potroak eta  
Eques arteko partidua  
interesgarria izango da  
oso. Los Heredia eta  
Kakajauriren artekoa  
ere ez da gutxiago  
izango. Igandean,  
berriz, Zotz eta Salen-  
ko y Konpañia izango  
ditugu nor baino nor;  
aurreko postuen bila  
ibiliko dira jo eta sua  
bi taldeak.**

**BELARRIRA**

◆ **Kalera.** 4. jardunaldian Lorategi-Potroak taldeko Aitor Gaztañaga jokalaria 2 partidutarako zigorra jaso zuen epailearekin erakutsitako jarrera txarra zela eta. Nerbio horiek kontrolatu egin behar dira, azken finean, ondo pasatzeko jokatzeko da eta ez haserretuta egoteko.

◆ **Abisuak.** Nuevo tabernak eta Baneukok antolakuntzaren abisua jaso dute. Zergatik? Bada, arbitraje txarrak egiteagatik. Arbitraje txarra egitea taldeen kalterako da; ohartu esandakoaz!

◆ **Loak hartu.** Haritz Azkarraga antolatzaileari, izarak pegatu zitzaizkion domekan eta horregatik beranduago hasi zen txapelketa. Hori da ganora! zapatuan juerga egin eta domekan ezin!

◆ **Kartera non?** Joan zen astean kartera bat galdu zen Zaldibarren. Karteran dokumentazioa dago, beraz, norbaitek aurkitzen badu, antolakuntzari eman diezaiola.

**EMAITZAK**

**A Taldea**

- Kriskibalda 4 - Bayer Leintz 3
- Astoen villa 7 - Strauss 4
- Bukanak 3 - Iluna Taberna 2
- Salenko Y Konpañia 2 - Cerveceria Leintz 6
- Fosforos 1 - Zotz 2
- Los Dalton 3 - Hirei 5
- Ganbelas 1 - Fraguel Gol 2
- Insert Coin 4 - Zuloak 9
- Adelaida-Haizea 2 - Arrasate Kirolak 5
- Eztanda egin arte 4 - Aterpe 1

**B Taldea**

- Petroleros 2 - Los Dimy 2
- Pepelus 14 - Monterrey 2
- Orkatz 2 - Ezkiñako Hontzak 3
- Anbotoste 2 - Uglys Txinato 2
- No Coment 4 - Txeyenex 3
- Arrasate Zoo 0 - Suministros Ugarte 8
- Tovarixtx 1 - Totem 9
- Danok Lagun 4 - Pub People 6
- La Banda 1 - Trikiti 5
- Nuevo Taberna 4 - Berango Sukaldeak 2

**C Taldea**

- D.K.B 2 - Perrahotsa 4
- Nabarros 2 - Autos Muru 6
- Lorategi Potroak 9 - Potrosorri 4
- Bodisca 3 - Eques 9
- Leya 2 - Irati STS 5
- Artzankos Udalaiz 2 - Orlando Piratas 1
- Excavaciones Lete 3 - Baneuko 1
- Txoko Taberna 2 - Foto Imagen 2
- Jotakabau 2 - Koka Juniors 2
- Frantziskaner 6 - Ke Oxtias! 4

**D Taldea**

- Diego A. Irztu 7 - Borrock'n Roll 4
- Sokoakoak 0 - Butangak 6
- Elisabeth 2 - Altza Porru 4
- Los Heredia 4 - Motz 3
- B.Z Sistemas 2 - Kakajauri 4
- Teodolito 2 - Mikelos 7
- Ojo Avisore 8 - Resakas 2
- Anorthosis Agudah 7 - Sukar 1
- A.C Surcos 1 - Argi Ibili 3
- Lautherbrunner 8 - Tronkoteak 7



**LASAGABASTER**

**ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.**

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

**ASTEBURU HONETAN**

**Larunbata 12**

- Zaldibar**  
 8.50 Lorategi Potroak - Equis  
 10.00 Nabarros - Potrosorri  
 11.00 Perrahotsa - Ke Oxtias  
 12.00 DKB - Autos Muri  
 13.00 Bukanak - Cerveceria Leintz  
 14.00 Teodolito - Resakas  
 15.00 Excavaciones Lete - Foto Imagen  
 16.00 Artzankos Udalaitez - Baneuko  
 17.00 Bayer Leintz - Aterpe  
 18.00 Kriskibalda - Strauss  
 19.00 Sokoakoak - Altza Porru

**Iturripe A**

- 10.00 Petroleros - Monterrey Taberna  
 11.00 Los Dimy - Berango Sukaldeak  
 12.00 Los Heredia - Kakajauri  
 13.00 BZ Sistemas - Mikelos  
 14.00 Astoen Villa - Iluna Taberna  
 15.00 Orkatz - Uglys Txinato  
 16.00 Fosforos - Hirei  
 17.00 Anbotoste - Txeyenex  
 18.00 Leya - Orlando Piratas

**Iturripe B**

- 12.00 Ganbelas - Zuloak  
 13.00 Bodisca - Irati STS  
 14.00 Diego Antonio Iriztu - Butangak  
 15.00 Los Dalton - Fraguél Gol  
 16.00 No Coment - Suministros Ugarte  
 17.00 Jotakabau - Frantziskaner  
 18.00 Arrasate Zoo - Totem

**Igandea 13**

- Zaldibar**  
 8.50 Ojo Avisore - Sukar  
 10.00 Adelaida haizea - Eztanda egin arte  
 11.00 Pepelus - Ezkiñak Hontzak  
 12.00 Zotz - Salenko y Konpania  
 13.00 Txoko Taberna - Juniors

**Iturripe A**

- 10.00 Anorthosis Agudah - Argi Ibili  
 11.00 Borrosck'n Roll - Tronkoteak  
 12.00 Elisabeth - Motz  
 13.00 Insert Coin - Arrasate Kirolak

**Iturripe B**

- 10.00 La Banda - Nuevo taberna  
 11.00 Ac Surcos - Lautherbrunner  
 12.00 Tovarixtx - Pub People  
 13.00 Danok Lagun - Trikiti

**Aurrekoak sendo eta atzekoak gero eta traketsago**


**5. jardunaldia** jokatu eta gero, oraindik asko falta da lehen fasea bukatzeko, baina gero eta gutxiago, jakina. Talde bakoitzetik 8 lehenak pasako dira bigarren fasera eta talde batzuen nagusitasuna gero eta garbiagoa da. A taldean, Bukanak eta Cerveceria Leintz sailkapeneko buruan daude 10 eta 8 punturekin. Trikiti eta Suministros B taldeko sailkapenaren goi muturrean ditugu. Irati STS eta Equis C taldeko jaun eta jabe dira eta D taldean Argi Ibili eta MSM sendo ditugu 10 eta 8 punturekin. Dena dela, sailkapena oso parekatuta dagoela esan behar da, talde askoren artean puntu bateko aldea besterik ez dago eta. Une honetan erdikaldean dauden taldeak neurketak irabaz-

ten hasiko balira, aurreko postuetan samur jarriko lireratekeela esan nahi du horrek. Jardunaldi honetan sorpresak ere egon dira, esaterako A taldeko liderrak Salenko y Konpaniak, galdu egin du Cerveceria Leintz taldearen kontra eta 3. postura jeitsi da. D taldean Txeyenexek eman du ezustea. 4 partiduetatik 4 irabazi eta azken neurketa galdu egin zuen No Coment talde apalaren aurrean, azken emaitza 4-3koa izan zen. Bestalde, Pepelus eta Monterreyren arteko neurketan lortu zen gol gehien, guztira 16 gol. Pepelusek 14 sartu zituen eta Monterreyk 2 bakarrik. 15 gol Lautherbrunner eta Tronkoteak taldeen arteko norgehiagokan lortu dira.



**• ARTEA •**  
 Eskulanak eta lientzoak  
**ENMARKAZIOAK**  
 Laminak, Izpiluak,  
 Margoak  
 Ferrerías, 11 Tfnoa: 77 10 95  
 ARRASATE

**beatriz**  
 oinetakoak eta  
 poltsak  
 Erdiko kale, 11  
 Tfnoa: 79 14 33  
 ARRASATE

**Eta hau, zer ote da?**  
**DU KANNST ES SAGEN**  
 (alemanez)  
  
**Bertako adituei galdetu.**  
 Erdiko kale, 37 Tfnoa: 79 90 36

**SHOT!**  
 grabaciones  
 SHOT! grabaciones S.L.  
 Araba Etorbidea, 3 - 2. solairua  
 Eskatu Pabilioia  
 ☎: 943 - 79 37 51  
 ARRASATE Gipuzkoa



EAtik Niko, Ainhoa eta Pello; HBtik Itsaso eta Ainhoa; EGItik Aritz eta JARRAItik Gari, Atarratz eta Iñakik hartu zuten parte mahainguruan.

# “Gazte gara gazte!”

Maidar Egües

**XXI. mendearen atarian jaio den gazteen belaunaldiari, “X Belaunaldia” deitu diote: Zergatik? Gero eta abiadura handiagoa hartzen eta kontsumoa jainkotzat duen gizarte honetan, gazteari zaila egiten omen zaio zerbaitekin identifikatzea. Historian zehar euren etorkizuna beltz ikusi duten belaunaldi asko izan badira ere, gaur egungo gazteen etorkizuna ei da beltzeta: Sekula izan den langabezia-tasa handiena ezagutzea tokatu zaie eta korrupzioa eguneroko konstantea duen politika batean idealak sinistarazi nahi zaizkie, halere, “etorkizuna gazteen eskuetan dago”**

**entzun behar izaten dute oraindik. Beraz, zein da gaur egungo gaztearen patua? Zerk kezkatzen du gaur egungo gaztea? Zer eskatzen dio etorkizunari?**

Gazteen inguruan erreflexio bat egiteko, gazte talde politiko guztietako ordezkariak gonbidatu genituen mahainguru batean parte-hartzera. Hurrengo lerrootan irakurriko dituzuenak mahainguru horretan parte hartu zuten gazteen iritzi pertsonalak dira eta ez ordezkatzeko duten taldearenak. Hauexek dira gaztearen inguruan mintzatu zirenak: EGItik **Aritz Solupe**; EAtik **Pello Urizar, Ainhoa Menika** eta **Nikolas Iriarte**; HBko Gazte Taldetik **Itsaso Retolaza** eta **Ainhoa Etxabe**; JARRAItik **Garikoitz Uri-**

**betxebarria, Atarratz Etxebarria** eta **Iñaki Urrutia**.

Gai askoren inguruan hitzegin genuen eta luze gainera. Airera botatako lehen galdera, gaztearen kezkei buruzkoa izan zen.

## ZERK KEZKATZEN DU GAUR EGUNGO GAZTEA?

Hasieran dirua aipatu zuten guztiak nagusiki baina langabezia diru faltaren arazoia dela atera zuten ondorio azkenean...

**Ainhoa E.** (HB): “Diruak erabat kezkatzen du gaztea; denbora gehiena kalean ematen dugu eta kontsumoa nagusi den gizarte honetan, dirua behar du.”

**Garikoitz** (Jarrai): “Dirua edukiz gero, dena daukazu; dirurik ez baduzu,

ez zara ezer”, balore hori oso sartuta dago gizartean, baina gero, pertsonalki, oso tristea da. Gaztearen ilusio bakarra dirua bada, “ondo” gabiltza!”

**Aritz** (EGI): “Diruaren arazoa langabeziarekin lotu behar da derrigorrez.”

**Itsaso** (HB): “Bai, lotuta daude, bata bestearen helburua delako.”

**Gari** (JARRAI): “Dena dela, gizarte hau kontsumista da eta dirua eukitzera behartuta gaude, beharrezkoa zaigu. Langabeziari dagokionez, gure etxeetan gero eta langabezia kasu gehiago ikusten ari gara gazteok, gurasoak ez badira, anai-arrebak. Lanik ez badago, ez dago dirurik. Gehiago kezkatzen nau langabeziak.”

## GAZTEA INPLIKATZEN DA POLITIKAN?

Argi dago gazte hauek

badutela politikarekiko kezka, baina orokorrean, gazteak politikaz paso egiten dutela uste dute.


**Pello** (EA): "Argi dago gazteak politikaz paso egiten duela, azken hauteskunderetako emaitzak begiratu besterik ez da egin behar: Absententziaren %60a, gazteena zen."

**Gari** (JARRAI): "Gertatzen dena zera da: politika gugandik urruti dagoen zerbait bezala ikuten dugula. Demokrazia aldarrikatu zenean politikak gaitz guztietatik askatuko gintuela uste izan genuen, baina orain, gazteak eta jende guztiak orokorrean, politikan korrupzio itzela dagoela ikusi du. Desilusioa oso handia izan da, baina politika ez da hor bukatzen: gazteak, batez ere E.Han, eguneroko bizitzan politikan partehartzen dutela ikusten da."

**Atarratz** (JARRAI): "Nire ustez gazteek paso egiten dute eta informazio faltari botako nioke nik horren errua: Gazte askok ez daki gure herriaren historia, eskolan ez da hori irakasten."

**Aritz** (EGI): "Nire ustez jendea ez da politikan bustitzen daukanarekin ados dagoelako. Konparaketa bat: 1936an jendeak ideal batzuk zituen, E.Ha Frankorengandik askatu behar zen eta denak mobilizatu ziren ideal horren alde. Gaur egun halako pasibitate bat dago, "arazo handiak" besteen eskuetan usten dira eta norbere arazoak konpontzeak soilik kezkatzen du jendea. Ez da inplikatzeko interesik ez duelako. Gizartea oso indibidualista da."

**Ainhoa E.** (HB): "Ez nago ados. Politikan zera gertatzen da: Gazte batek botoa emateko orduan honela pentsatzen du: "Zertarako botatu, gero, alderdi hori beste batekin elkartu behar bada? Ez dauka zentzurik, nire ustez politikoei kartera betetzea



"Daukanarekin ados dagoelako ez da jendea politikan politikan bustitzen"

● **"Demokrazia aldarrikatu zenean, politikak gaitz guztietatik aterako gintuela uste izan genuen baina politika-korrupzioa ikusi ondoren, desilusioa oso handia izan da."**

● **"Nire ustez daukanarekin konformatzen delako ez da gaztea bustitzen politikan."**

● **"Nahi dugun guztia daukagu; zertarako mugitu? Ez daukagu ilusiorik!"**

● **"Gaztea berez, nortasunez, inkonformista da, baina momentu hauetan inkonformismo hori etxean bakarrik isladatzen du."**

besterik ez dute nahi."

**Gari** (JARRAI): "Gaztea gizartearen islada da: eroso. Gaztea berez, nortasunez, inkonformista da baina momentu hauetan inkonformismo hori etxean bakarrik isladatzen du: "Ez dut ingelesera joan nahi" etabar esanez. Baina gizartea indibidualista da eta guzti horren emaitza gazte indibidualista inkonformista da.

**Ainhoa M.** (EA): "Nahi dugun guztia daukagu: kalera irten nahi badugu, paga ematen digute; ikasi nahi badugu, gurasoek ordaintzen digute... zertarako mugitu? Ez daukagu ilusiorik."

### **ARRASATEKO GAZTEA PASIBOA DA?**

Arrasaten 40 gazte talde-tik gora daude. Mahaiaren inguruan eseritako gazte batzuk, talde horietakoak "betikoak" direla eta talde horietan sartzeak ez duela merezi uste dute; beste batzuen ustez, hori esatea oso eroso da. Bestalde, 1990ean udalak egindako azterketa baten bidez, Arrasateko gazteen %73'8a ez dagoela inolako taldetan sartuta ikusi zen, hau da, elkartasunaren alde ez daudela. Arrasaten horrenbeste gazte-talde egonik, horrek badu zentzurik?

**Ainhoa M.** (EA): "Ekintzak etabar antolatzen direnean betiko aurpegiak ikusten dituzu."

**Gari** (JARRAI): "Agian egia izango da aurpegia betikoek ematen dutela baina horiek ez lukete aurpegia emango euren atzean beste gazte batzuk mugituko ez balira eta atzeko gazte horiek ere kontutan izan behar dira."

**Itsaso** (HB): "Gazteak ezertan parte hartzen ez badute, eurek nahi ez dutelako da, arrazoi pertsonalengatik; Arrasaten inon baino gazte-talde gehiago dago eta horiek ez dira aukerak daudelako sortzen, zerbaiten beharra

ikusten dutelako baizik.”

**Gari (JARRAI):** “Nire ustez antolaketa serio baten beharra dago talde askotan. Gazte askok talde bat osatzeko gogoia izaten dute baina gero ez dira ezagutzera ematen eta horrela gazteen artean desinformazioa ematen da. Ez dago taldeen arteko elkarlanik. Bestalde, 18-25 urte bitarteko gazte baten eguneroko bizitza aztertzen baduzu, eskolatik irten eta mila aktibitateetan sartuta dagoela ikusten duzu: hizkuntzak, musika... Gazte horrek denbora libre minimoa ikusten duenean, kalera joaten da eta ez zaio talde baten bilerara joatea bururatzen: gaur egungo gaztea saturatuta dago.”

#### LOGIKAZ IKASTEA

Ikasketen inguruan ere mintzatu ziren: Gaur egun unibertsitatera joaten den gazte batentzat ez da nahikoa karrera egitea, norberaren kurrikuluma oso garrantzitsua da: Masterrak, ikastaroak, hizkuntzak, praktikak... Gazte asko horretaz konturatu ez eta karrera egiteak besterik ez dituela arduratzen diote.

**Nikolas (EA):** “Sekulako ‘titulitis’ gosea dago”.

**Itsaso (HB):** “Nire esperientzia kontatuko dizuet: Injinerutza ikasten dut eta Arrasaten behintzat badaukagu lan egiteko aukera bat: Alecoop, baina hor lanean sartzeko zerrenda bat egoten da eta nik 6 hilabete itxaron behar izan nuen. Halere, gurasoen diruarekin bizi izatea gustatzen ez zaidan pertsona bat naizenez, ipurdia mugitu eta AEDn ibili nintzen begirale, diru pixka bat ateratzeko. Baina nire klasean, lan egiteko inolako asmorik eta gogorik ez duten 27 urteko gazteak ikusten ditut eta lotsagarria iruditzen zait. Azken finean, era guztietako gazteak daudela uste dut.”


**Gari (JARRAI):** “Horren errua gurasoena izan daiteke:



● **“Sekulako titulitis gosea dago.”**

● **“Lan egiteko inolako asmorik eta gogorik ez duten 27 urteko gazteak ikusten ditut nire klasean.”**

● **“Gazteak berak izan behar du lotsa sentitu, eta zerbait ikasten egon arren, dirua ateratzeko lan baten bila hasi behar duena.”**



Gazteak kritikoa azaldu ziren euren etorkizunaren aurrean.

gurasoek seme-alabak eskatzen dioten guztia ematen badiote...”

**Ainhoa E. (HB):** “Ez, nik uste dut gurasoek sekula ez dizutela laguntza ukatuko; nire ustez gazteak berak izan behar du lotsa sentitu eta zerbait ikasten egon arren dirua ateratzeko lan baten bila hasi behar duena.”

**Itsaso (HB):** “Nik ez dakit gazteak zein punturaino konturatzen diren karrerara amaitzean esperientzia pila bat baloratzen dela. Kazetaritzako ikasle batek ezin du 5 urteko karrera bat egin sekula kronika bat idatzi gabe: Esperientziaren truke, dirusaririk gabe lan egiteko prest egon behar dugu.”

**Pello (EA):** “Tituloarekin nahikoa dela uste dute batzuk baina nire ustez, gaur egun, ez tituloarekin ez esperientziarekin, ez da nahikoa: gero eta gehiago, nagozio propioak eraten hasi behar dugula konturatu behar dugu. Gainera, gaur egun ez da kontratu fijoak egiten eta gaztearen lan-etorkizuna alde batetik besterakoa da. Kontratu fijoak lortzeko modu bakarra, funtzionari sartzeko da.”

Beste mila gauzen inguruan mintzatu ziren mahainguruko partaideak: gaztearen independentzia pertsonala, etxebizitza eta alokairuen garestiaz etabar. Azkenean, esandakoetatik garrantzitsuenak besterik ez ditugu jaso orri hauetan.

Gazteari etorkizuna beltz azaltzen zaiola uka ezina da, baina gaztea arazo horretaz jabetuta dago. Azkenean, bere kabuz egin beharko du aurrera eta gainera datozkion pisuak gaineratu beharko ditu.

“X Belaunaldia” izenez deitzen dioten gazte-belaunaldiari, ez zaio etorkizuna erraz azaltzen.

# Gaztetxearen gainbehera Nor da erruduna?

**Bi gaztetxeren espe-  
rientziak ezagutu ditugu  
Arrasaten: Gurea Zine-  
makoarena eta gaur  
egungoa; baina, arrazoi  
batengatik edo bestea-  
rengatik, gazte guztien  
gustokoak ez direla  
izan esan behar da. Gaz-  
te askok sekula ez dute  
gaztetxea zapaldu,  
hauen ustez, "betiko  
jendeak eramaten du  
gaztetxea eta oso giro  
konkretua dago". Ber-  
tan lanean ibili direnak  
berri, Arrasateko gazte  
guztien inplikazio ezari**

**leporatzen diote gazte-  
txearen gainbehera.**

Duela gutxi jasan duen gainbehera baten ondoren Arrasateko gaztetxea berriz ere burua altxatzen ari dela esan daiteke momentuotan; hala ere, ez dira hauek gaztetxeko garai onenak.

Gogoz ekin zioten lanari gaur egungo gaztetxea sortu zuten gazteek: Frantzizkotarren kalistroetako zulo batetik sartu eta berehalako "okupazioa" izan zen gaur egun gaztetxea den lokalarena, baina zulo hura handituz joan eta


pixkanaka-pixkanaka, itxura hartuaz joan zen gela handi bihurtu zen.

Urte hauetan zehar bertan eman diren kontzertuak kontaezinak dira. Makina bat ikastaro antolatu da, baita asanblada zabal ugari ere; baina egia esan, harri berberarekin egin dute topo beti: gazteen partehartze eta inplikazio eza. Gaztetxea aurrera ateratzeaz arduratu direnak gutxi batzuk izan dira, eta Arrasateko gazte askoren usteetan, "betikoak".

Kontuak kontu, gaztetxearen gainbeheraren errua

batak besteari bota diote gazteek. Gaztetxera joaten ez direnen ustez, gaztetxea gazte konkretu batzuentzat dago egina edo eratuegia dago sudurra sartzen eta gauzak aldatzen hasteko. Gaztetxean partehartzen dutenen usteetan, salaketa hori erosoegia da: "Gaztetxea gazteen etxea da, gazte guztien etxea. Dagoena gustoko ez badute, etor daitezela proposamenekin, gu euren zain gaude".

Bi iritziotako lagunak izan ziren mahainguruan. Hauexek dira eurak esanda-koak:




**Garikoitz Uribetxebarria**

"Nire ustez gaztetxearen gainbeheraren errua informazio falta izan da. Gaztetxearen funtzioa 3 galdera sinpleri erantzunez jakin dezakegu: 1.- Gaztetxea zertarako da? 2.- Gaztetxeak zein posibilitate lan ditzake? 3.- Gaztetxea zeinentzako da? Nik konponbide bat proposatzen dut: Betidanik komentatu izan da errurik handiena gazte-talde eta gazteen arteko harremanik eza izan dela. Harreman hori egongo balitz, gazteak eta gazte-taldeak gaztetxean elkartuko lirake.



**Nikolas Iriarte**

Zein gaztetxe eredu nahi dugun definitu behar dugu lehenengo. Niri orainartekoa ez zait gustatu eta oso gubxitan joan izan naiz. Partehartzea eta iniziatiba eskatzen da eta horrekin ados nago, baina ezin zara bapatean gaztetxean sartu eta gauzak aldatzen hasi: oso eratu dago eta beti jende berbera egoten da, aurpegi berdinak ikusten dira beti. Sekula ez zait bururatu gaztetxean zerbait antolatzea sartzera, ez dut nire burua gaztetxean ikusten.



**Pello Urizar**

Nire ustez jendeak hobeto ikusten ditu AEDn sortu berri diren Gazte Txokokak gaztetxea baino. Gaztetxean bame egituraketa, seriotasuna eta estruktura falta ikusten dut. Gaztetxeak ez du itxura ona ematen. Argi dago, gaztetxearen gainbeheraren errua, bertan lan egiten dutenena baino, gaztetxera joaten ez diren gazteena dela, denok inplikatu behar dugu bertan eta.

Nire ustez, gazte guztien gustoko gaztetxe bat sortzera hel gaitzeko baina denen arteko lana beharrezkoa da.



# Behobia-San Sebastian maratoian gero eta arrasatear gehiago

**Behobia-San Sebastian** 20 kilometroko maratoia jokatu da domekan. Aurten ezindu fisikoek ere maratoi herrikor eta garrantzitsu horretan parte hartzeko aukera izango dute; 2 urtetan lasterketatik kanpo egon ondoren, 30. edizio honetan ezindunen parte hartzea ziurtaturik dago. 7.000 atleta baino gehiago espero dira eta antolatzaile, ikusle eta korrikalariak kontutan izanda, esan daiteke 35.000 pertsona mugituko duela 94ko Behobia-San Sebastian maratoiak; errekor guztiak hautsiko ditu, beraz, 30. edizio horrek. Arrasatek ere izango du ordezkartzarik. Loramendi Kirolak kirol dendan izena emateko 100 inskripzio ekarri zituzten eta berehala bukatu ziren. 100 lagun horietatik 8

emakumeak dira. Dena dela, 100 lagun horiek ez dira arrasatearrak bakarrik izango, tartean Aretxabaletakoak, Eskoriatzakoak, Oñatikoak, Abadiñoakoak eta Elorriokoak ere badaude eta. Hala ere,

Arrasaten izena eman duten korrikalarien kopuru haundiena etxekoa da. Arrasateko marka onena Mentxakak dauka 1' 08" 13" denborarekin eta domekan bere marka pertsonala hobetzen ahale-

ginduko da. Emakumeetan Pili Valdezatek du denbora onena 1' 34' 02ekin. Eta honek ere ahalegin berezia egingo du marka berria Arrasatera ekartzeko. Maratoian egongo diren sariaz gain, Loramendi Kirolak dendak bi sari emango ditu Arrasateko korrikalari onentzat, bai gizonezkoetan eta baita emakumezkoetan ere. Maratoian parte hartu behar dutenek kontutan eduki behar dute, froga hasi baino 3 ordu lehenago gosaltzea aholkatzen dela eta lasteketa hasi arte ez dela ona azukredun edaririk hartzea. Gainera, egun horretan ez da komenigarria korrika egiteko arropa estrenatzea, zapatilak, frakak, galtzetinak eta abar betikoak erabiltzea eskatzen da. Zorte on guztioi!



Korrikalariak izango dira protagonista igandean.

## EMAITZAK

**Futbola**  
**3. maila:** Mondra 0 Getxo 1  
**2. erregionala:** Mondra 1 Urki 0  
**Emakumeak:** Intxaurren 3 Mondra 3  
**Ohorezko maila:** Santo Tomas 1 Mondra 5  
**Jubenilak:** Almen 3 Arrasate 1  
**Lehen Kadeteak:** Arrasate 2 Almen 1  
**2. Kadeteak:** Arrasate 0 A. Bat 0  
**Infantilak:** Hamaikak bat 3 Arrasate 1  
**Hurrengoak:**  
**3. Maila:** Zalla - Mondra. Igan-dea 3.45. Landaberri  
**2. Erregionalak:** Antzuola - Mondra.  
**Emakumeak:** Mondra - Antoniano. Igan-dea 3.30. Atxabalpe.  
**Ohorezko maila:** Mondra - Union Txiki. Larunbata. 3.30. Atxabalpe

**Jubenilak:** Arrasate - Gazteak. Larunbata. 11.30. Atxabalpen.  
**Lehen Kadeteak:** Aurrera - Arrasate.  
**2. Kadeteak:** Illintxa B - Arrasate.  
**Infantilak:** Arrasate - UDA. Igan-dea. 10. Atxabalpen.

**Saskibaloia**  
**Eba Liga:** Ponferrada 83 Urbina Maltzaga 76  
**Seniorrak S-23:** Loliola 95 Urbina Maltzaga 59  
**Juniorrak A:** Askatuak 65 Urbina Maltzaga 67  
**Seniorrak Emak:** Urbina Maltzaga 61 Escuela ingenie 27  
**Kadeteak A:** Urbina Maltzaga 87 Juben 41  
**Kadeteak B:** San Benito 61 Urbina Maltzaga 46  
**Kadeteak Emak A:** Urbina Maltzaga 53 Amigos Irun 49

**Kadeteak Emak B:** Urbina Maltzaga 52 Eskoriatza 17  
**Hurrengoak:**  
**Eba Liga:** Caja Cantabria - Urbina Maltzaga. Igan-dea. 12.30. Torrelavega.  
**Juniorrak A:** Urbina Maltzaga - La Salle. Larunbata 4.30etan.  
**Juniorrak B:** Askatuak - Urbina Maltzaga.  
**Seniorrak Emak:** Atle. S. Sebastian - Urbina Maltzaga.  
**Kadeteak A:** Zarautz - Urbina Maltzaga.  
**Kadeteak B:** Urbina Maltzaga - Goierri. Larunbata 10etan.  
**Kadeteak Emak A:** Gros Loliola - Urbina Maltzaga.  
**Kadeteak Emak B:** Andraitz - Urbina Maltzaga.

**Eskubaloia**  
**Lehen maila:** Arrasate 29 Torrelavega 26

**Lehen territoriala:** Arrasate 13 Akondia 19  
**Hurrengoak:**  
**Lehen maila:** Ereintza - Arrasate.  
**Lehen territoriala:** Urrietako - Arrasate.

**Futbitoia**  
**Lehen maila:** Arrasate 2 Jarrileros 4  
**Arabako Territoriala:** C Isabel 10 Arrasate 0  
**Hurrengoak:**  
**Lehen maila:** Gernika - Arrasate.  
**Arabako territoriala:** Arrasate - Calasanz. Larunbata 5etan Iturripen.

**Rugby-a**  
**Lehen maila:** Arrasate 14 Eibar 17.  
**Jubenilak:** Hernani 25 Arrasate 0

**Pilota**  
**Kadeteak:** Arrasate 5 Tolosa 22  
**Juniorrak:** Arrasate 22 Segura 12  
**Jubenilak eskuz banaka:** Soraluze 18 Arrasatek 8  
**Nagusiak eskuz banaka:** Ordizia 18 Arrasate 11  
**Paletan:** Arrasate 35 Billabona 16  
**Hurrengoak:**  
**Kadeteak:** Arrasate - Billabona. Larunbata 11etan Iturripen.  
**Jubenilak eskuz binaka:** Arrasate - Anoeta. Larunbata 11etan Iturripen.  
**Jubenilak eskuz banaka:** Billabona - Arrasate.  
**Juniorrak:** Azpeitia - Arrasate.  
**Nagusiak eskuz banaka:** Deba - Arrasate.  
**Nagusiak Eskuz binaka:** Deba - Arrasate.

**BASABE JATETXEA**  
 Menu eta afariak  
 Boda eta banketeak  
 Tfnoa: 79 91 84  
 ARETXABALETA

**Begoña lurrindegia**  
 Drogeria  
 Jostailuak  
 Opariak  
 Gipuzkoa Etorb. 33,  
 Musakola Auzoa,  
 Tfnoa: 79 03 73

**ERAIKUNTZAK**  
 Olarte, 30 etxabea.  
 Tfnoa: 79 77 11  
 Faxe: 79 77 11  
 ARRASATE  
 Postakutxa: 118

# Bitaminak (II)

## D BITAMINA (COLECALCIFEROL)

Hainbeste beldurtzen gaituen kolesterola D bitamina bihurtzen dute eguzkiaren izpiek. Beraz, kolesterola beharrezkoa da D bitamina gure gorputzean ekoizteko.

**Funtzioak:** Gorputzean kaltzioaren funtzionamendua erregulatzea.

### Zein elikagaitan aurkitzen da?

- Esnekietan (gaingabe-tuan ez), gurinean eta margarinan.

- Atun, hegaluze eta kaballa bezalako arrainetan.

- Arrain-gibelaren olioan.  
- Arraultzaren gorringoan.

Gorputzeko kaltzioaren erregulazioan parte hartzen duela esan dugu. Horregatik, D bitaminaren eskasiaren bat

gertatzen bada haurretan errakismoa ager daiteke, hezurretako alterazio baten ondorioz eta gizaki nagusietan berriz Osteomalazia, hau da, hezurretan kaltzio pilaketa gutxiegi izatea.

Hala ere, beste bitamina liposolugarrietan bezala, behar dena baino askoz gehiago hartzen badugu gaixotasun eratorriak ere ager daitezke.

## E BITAMINA (TOCOFEROL)

**Funtzioak:** 1.- Antioxidatzailea: Zelulen mintzak osorik mantentzen laguntzen du.

a) Gure gorputzean: Zahartze prozesuarekin erlazioa dauka: E bitamina gutxi hartzen badugu, lehenago



zahartzen gara, baina E bitamina hartzeagatik ez dugu zahartzen prozesua gelditzen.

Minbiziarekin ere antzerako erlazioa bat gordetzen du.

b) Elikagaietan: Elikagai batzuei gehitzen zaie antioxidatzaile funtzioarekin.

2.- Odolaren koagulazio prozesuan parte hartzen du.

Honako jaki hauetan aurkitzen da gehien: Gantz ez-saturatuarekin batera.

- Landare olioetan: hazie-

tan batez ere.

- Fruitu lehorretan.

- Arraultzaren gorringoan, gutxiago bada ere.

E bitamina gutxiegi hartzetik anemia ager daiteke, baina ez da arrunta izaten gizaki nagusietan, bai ordea garaizurreko umeetan. E bitamina gehiegi hartzeagatik ez da gaixotasunik ezagutzen.

**MAIDER NUIN  
ETA JAVIER SANCHEZ**  
(Elikagaien Zientzia eta  
Teknologiako ikasleak)

# egizabal



**oinetakoak  
poltsak**


**ferrerias, 9**  
☎: 79 66 01

**arrasate**

# Bill Thomas

## Blues Bandaren emanaldia

Azaroak 18, ostirala  
 Gaueko 10,30etan  
 Amaia antzokiko hall-ean  
 Sarrera: 300 Pta  
 kontsumizioarekin



### THE TEXAS MESSAGE OF THE BLUES

ANTOLATZAILEAK:



gm  
 gaztemaniak



KOLABORATZAILEA:

"Aterpe" taberna

## Berta Casals eta Eva Marciel

# Bi neska madrildar Oñatin aktorea

**Pierre Boutron-en "Fiesta" pelikulan aktorea lanetan ibili izan diren bi neska madrildar Arrasaten izan dira bizi izaten filmaketan zehar: Berta Casals eta Eva Marciel dira. Oraindik oso gazteak diren arren, pixkanaka zinearen munduan sartzen doaz. Filmaketa egun gogor baten ondoren, eurekin egoteko tarte bat egin ziguten.**

— Zein da zuen papera "Fiesta" pelikulan?

— **Eva:** Pelikulan gu biak ahizpak gara, ahizpa aberats, frankista eta aristokratak. Protagonistaren lehengusinak gara eta teniente eta generalekin batera bazkaltzera etabar joaten gara. Fusilaketak ikustera joaten gara eta odola asko gustatzen zaigu, hau da, fusilaketekin asko gozatzen dugu. Gatazka edo gerra guztia festa bat balitz bezala ikusten dugu eta ondo pasatzen dugu.

— Oso gazteak zarete. Nola heldu zarete zinearen munduraino?

— **Berta:** UBI bukatu eta kazetaritza eta arte dramatikoa ikasten hasi nintzen, hau da, biak batera. Azkenean, arte dramatikoa kazetaritza baino gehiago gustatzen zitzaidala konturatu nintzen eta hartara guztiz dedikatzea erabaki nuen. Zinearen munduan kortoak eginez hasi



nintzen. Bi antzezlanetan ere hartu dut parte eta oraindik estreinatu ez den Escrivá-ren "¿Quién da la vez?" seriean ere lan egin dut, baina "Fiesta" nire lehen pelikula da: casting baterako deia egin zuten, aurkeztu egin nintzen eta hemen nago orain.

— **Eva:** Ni oraindik UBI nago. Dena dela, 8 urterekin antzerkia egiten hasi nintzen eta 15 urterekin errepresentante bat bilatu behar izan nuen; oraindik estreinatu ez den telebista serie bat ere egin nuen. Uda hontan, "Ningun día por la tarde" zine pelikula egin dut; oso ona da eta datorren otsailan estreinatuko da; besteak beste, Charo Lopez eta Fernando Villacervos-ek egi-

ten dute lan pelikula horretan.

— Gogorra da grabaketa edo errodaia egun bat?

— **Berta:** Goizeko 6etan jeiki eta 6.30etan gure bila etortzen dira. Oñatira heldu eta makilatu eta orraztu bitartean, bi ordu pasatzen dira, beraz, 8.30ak aldera hasten gara lanean.

— **Eva:** Lana oso gogorra da, batzutan eszena asko kanpoan grabatu behar izaten dira eta hemen hotz handia egiten du. Baina dena esan beharra dago: oso ondo tratatu gaituzte, nahi izan dugun beste janari izan dugu, loditu ere egin gara bokadilo pila bat jan dugulako! Ez, egia esan gogorra da baina hau da gustatzen zaiguna eta azke-

nean disfrutatu egiten dugu.

— **Berta:** Lan honetarako bokazioa behar da; lan hau oso dibertigarria dela uste du jendeak, baina batzutan aspergarria izan daiteke. Imaginatu: ikusle moduan rodajea ikusten ari den jendea ere aspertu egiten da.

— Zer moduzko zuzendaria izan da Pierre Boutron?

— **Eva:** Pelikula osoan zehar harreman estua izan dugu berarekin, eta baita talde guztiarekin ere. Gainera, gu aktorea gazteenak ginen eta oso goxo tratatu gaituzte: momentu guztietan zeuden gure gainean. Pierre Boutron-ek zerbait zuzendu nahi zigunean, gugana hurbildu eta goxo-goxo azaltzen zigun berak zer nahi zuen, muxuak eta guzti ematen zizkigun!

— **Berta:** Bereziki tratatu gaituen beste pertsona ere bat aipatu nahi dut: Jabier Agirresarobe, argazki arduraduna. Euskalduna da eta gure ustez, estatuko profesional onena.

— Arrasaten polemika sortu zen pelikularen gainean. Zein da zuen iritzia?

— **Eva:** Gaizki ulertu dute pelikula, nobela batean oinarrituta dagoelako eta azkenfinean, satira bat delako. Gainera, pelikula hau ez da Francoren alde jartzen, guztiz kontrakoa baizik: antifasista da.

**Berta: "Lan honetarako bokazioa behar da"**

**Eva: "Pelikula hau guztiz antifasista da"**

● **Txitxinpe** ●  
Berezitasunak:  
Kafea, ardoa, urdaitegia,  
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

**ZUBIZARRETA  
TAILERRAK**

Gipuzkoa Etorbidea, 22  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 15 65

**TTUKUN**

Fotokopiak  
Enkuademazioak  
Koloretan fotokopiak  
Planoen erreprodukzioa  
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE  
Tfnoa: 79 46 62

PRESS  
**ARRASATE**

Harpidetzak:  
**77 08 15**

# Taun-Taun, argazki makina baten barruan

LABURRAK

## Artisau Langintzen Ferixa

Datorren igandean, azaroak 13, "Artisau Langintzen Ferixa" egingo da Gatzagan, San Millixanak ospakizunaren barruan bertako Artisau Kolektiboak antolatuta.

Ferixa goizeko 11etatik eguerdiko 14.30etara eta arratsaldeko 16.30etatik 20.30etara egongo da zabalik herriko frontoian.

Horren bitartez, gaur egungo edo aintzinako artisau lanak erakutsi nahi dira, baita lanbideen lanen prozedura jendeari ezagutaraztea ere. Gainera, erakutsitako guztia salgai egongo da, era honetan, artisau lanen komertzializazioa bultzatu nahi da eta.

"Artisau Langintzen Ferixan" aintzinako armak, egurrezko eta harizko taila, pilotak, kartoizko buruhandiak, lore lehorrak, enkuadernazioak, makilak, euskal bordatuak, kuadroak, keramikak eta larruz egindako lanak izango dira ikusgai eta salgai.

## "Fiesta": Polemika akabo

Duela bi aste "Fiesta" filmearen inguruan sortutako polemika amaitu da. Azkenean, J. R. Garai "Oktubre" taldeko partaidea eta salaketa horretan inplikaturako hainbat pertsona, pelikularen zuzendariarekin elkarriketatuta eta Pierre Boutronek, argi utzi zien "Fiesta" pelikula guztiz antifazista zela.



Taun-Taun kolektiboa "Makinatu" antzezlanaren taularatu du larunbatean.

**Datorren** larunbat honetan, azaroaren 12an, Taun-Taun kolektiboaren azken antzezlanaren izango dugu ikusgai Amaia Antzokian gaueko 10.30etan: "Makinatu".

### SINOPSISIA

"Makinatu" antzezlanak, argazki makina zahar baten barruan sartzen du ikuslea. Alberto Iñurrietak, Taun-Taun taldeko partaideak adierazi duenez, "antzerkia historia bisual bat da batipat; bizitza etengabeko iraultza bezala agertzen da eta iraultza hori negatiboan plasmazten denean, bizitzaren amaiera esan nahi du. Era berean, amaiera horrek bizitza berria sortu beharra ekartzen du, beraz, iraultza hori gelditzera kondenatua dago eta gelditze hori, berriz hasiera."

Taun-Taun taldeak banatu duen triptikoan, hala azaltzen da antzezlanaren sinopsia: "Jolas parkean jarri genuen gure argazki-makina zaharra eta barnean itxarogenuen: Harrapatutako irudiak euren bizinahia aldarrikatzen ziguten baina negatiborantz bideratu behar genituen gure jolasen bitartez. Egun hartan zerbait atera zen oker."

### "TAUN-TAUN" EN KURRIKULUMA


Talde hau 1987an sortu zen Bergaran. Harien teknika azaletik ikutu ondoren beste teknika batzuetan espezializatu dira. Euren txontxongiloek, komikietako pertsonaien espresibitateak dute eta haurren munduan lan egin badute ere, euren publikoa heldua da.

Euskaraz eta gazteleraz egiten dituzte euren emanaldiak eta nazioarteko hainbat jaialditan hartu dute parte: estatu barruan eta baita kanpoan ere, 1992an Venezuelan kasu.

Orain arte burututako antzezpenak hauek izan dira: "Izuikara haripean" (1987), "Lam eta Lorea" (1989), "Bi Kate" (1990), "Taun-Taun Show" (1992) eta "Makinatu" (1994).

Kolektibo honek bi sari garrantzitsu irabazi ditu: 1991an, "Villa de Madrid" en interpretazioko lehen saria eta 1992an Euskadiko X. Antzerki Topaketan lehen saria ere etxeratu zuen. Bestalde, Bergarako "Helduentzako Txontxongi-oen Mostra Internazionale" ren antolatzaile izan zela aipatu behar da.

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62

comercial  
san juan

Garibai, 12  
Tfnoa: 79 13 05

hikein

MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4  
Tfnoa: 79 13 84

Plus Ultra  
taberna

Maalako Errabala, 17  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 20 57



1.900 urtean Osiña baserriko Zeziaga-Olalde familia.

baserriko hau, Zeziagatarrak, gaur egun Arrasaten adar askotara zabaldu den familiaren jatorria.

**Domingo Zeziaga** eta **Klara Olalde** senar-emazteek 13 seme-alaba izan zituzten; erretratuan ageri dira guztiak. Erretratua 1900 urte inguruan ateratakoa da, Osiña baserrian bertan.

Gorengo lerroan, ezkerretik, **Julian** (Zeziaga dendakoa), **Frantziska** eta **Juan** (Osiñan bertan bizi izaten geratu zena).

Beharago ezkerretik, **Ines** (Iehengo Bengoa tabernakoa), **Bonifazia** (Ziorkoa), **Luis** (Divinotarren aita), **Leona** (Osiña-Erotara joan zena), **Emeteri** eta **Matiesa**.

Jarrita daudenak, ezkerretik eskumara, **Bixente**, **Domingo "Hermoxo"**, **Domingo Zeziaga** aita, **Manolo**, **Klara Olalde** ama eta **Doroteo**.

Gaur egun ez da hauetako inor ere bizi; "Hermoxo" hil zuten azkena eta, orain 14 urte,

92 urte zituela. Gatzizen hori berari jarri zioten, mutil garratza zelako edo.

Baserriko beste familia askok bezala, sasoi honetan hauen afaria ere gaztainaz osatua izaten zen: gaztaina egosia eta gainean salda. Ondoren errezatu egiten eizuten. Garai hartan egon ere gaztaina asko zegoen, adinekoek gogoratzen dutenez baserri haren inguruan Etxazuritik Osiñaraino dena gaztainudi, inguru hauetako beste baso askotan legez.

UGARAN  
jatetxea

Josuk, 21 urte.  
Anak, 19.

Duten adinarekin,  
bidaiatu egiten dute.  
Topera gozatzen dute.  
Dantza egiten dute.  
Proiektuak dituzte.  
Presarik gabe bizi dira.  
Egunean egunekoa bizi  
dute.  
Aurreztu eta gastatu  
egiten dute.

57 eta 55 urte dituzten  
Fermin eta Mirenek  
bezalaxe.




55 urtetik gora baduzu eta gehien atsegin duzuna egin nahi baduzu, Euskadiko Kutxaren Super 55 Libreta.

- %5\*erainoko U.T.B.a.
- Zerbitzuak, eskaintzak eta atentzio eskusiboak.
- Eta kontsultatzeko doako Zerbitzu Telefonikoa\*\* : 900 555 900 zkia.

Informa zaitez sukurtsal honetan.

\*100.000 pta.ko gutxienezko saldotik aurrera, lehen 100.000 pta.k %0,10ean. UTBari buruzko adibideak: 250.000 pta.rako %3,11. 1.000.000 pta.rako %4,61. 5.000.000 pta.rako %5,01. \*\* Campus Kultur Elkarteak kontrataturikoa.


Super 55 Libreta

  
**CAJA LABORAL**  
EUSKADIKO KUTXA

• ESAERA ZAHARRA •

“Dakienak ez dakienari erakustea ona da, onerako bada”

• JEROGLIFIKOA •



Gipuzkoako herria

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7
8					9	
10			11			
12		13		14		
15			16			17
		18				
19				20		

J. B. AGORRIA

**Horizontalak** 1. Mendiguren itzul-tzailearen izena. 6. Infusio mota. 8. Narraz. 10. (Ald.) Nafarroako ibilgailuetan. 11. (Ald.) Etekin. 12. Udaberri eta udazkenaren artean. 14. (Ald.) Erne. 15. Baliogabetasun. 18. Morroi. 19. (Ald.) Egunak 24 ditu. 20. BUKAERA erdian.

**Bertikalak** 1. Galdetu. 2. Amerika osoko hegazti handiena. 3. Kanpo. 4. Nasa. 5. Antsia. 6. Burugogorra. 7. Euskadiko Zeliakoen Elkarte. 9. (Ald.) Kemeta. 13. Soro. 16. Arnas gabeziak hil. 17. Nire.

• HOROSKOPOA •

**Aries** Alkondara urdin horrekin itxura hobeza duzu.

**Taurus** Liburutegiko liburuak itzuli egin behar dira, ez lapurtu.

**Gemini** Ez galtzeko, txintzarria jarri beharko zenuke.

**Cancer** Ostiraletan zurekin hitzegin daiteke, baina astelehenetan...

**Leo** Aste honetan multa jarriko dizute autoa gaizki aparkatzeagatik.

**Virgo** Hego haizea dabilzu buruan bueltaka. Lasaitu zaitez.

**Libra** Goizetan fundamentoz gosaltzea komeni zaizu.

**Scorpio** Etzi afaritxo bat izango duzu. Nork gonbidatuko ote zaitu?

**Sagitarium** Etxeko komunean obratxo batzuk egin beharko zenituzke.

**Capricorn** Osasunaz kontuz ibili, bestela laster ospitalera joan beharko duzu.

**Aquarius** Pozik zaude datorren hilean olentzero etorriko delako. Zein umea zaren!

**Piscis** Aurpegi horrekin ez duzu inor konbentzitu. Zirujia egin beharko duzu.

**BULARREKO PATOLOGI UNITATEA**

**Mamografia**

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

**GINEKOLOGI  
KONTSULTATEGIA**



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18



## • ATBREN TXOKOA •

## • PROGRAMAZIOA •




## Badator Porrie!

**B**adator Porrie, eta gainera, inoiz baino gogorrago! Aurreko Mondrasport saioetan bezala, oraingoetan ere, ikusleek Arrasate Kirolak-ek oparitzen duen 10.000 pztako erosketabonua eskuratu ahal izango dute. Horretarako zer egin behar den? Erraza: Mondra futbol taldeak jokatu duen hurrengo partidua emaitza asmatu besterik ez duzue egin behar eta emaitza hori paper batean idatzi "Arrasate Kirolak Porrie" izenburuarekin. Paperak, Arrasate Kirolak dendan, Arrasate Telebistan bertan eta Kajoi edo Ekaitz tabernetan aurkituko dituzuen buzoietan utzi behar dituzue, eta... ezer gehiago ez! Zorte on!

## • KOMIKIA •



Sgu-zahar



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia.  
Offset industrialia

Aretxabaletako industrialdea, F-0-4 Tfnoa: 79 18 44 - FAX: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

**13 Igandea**

21.00etan  
Mondragol

**14 Astelehena**

13.30etan  
Mondragol (errep).  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Mondrasport

**15 Asteartea**

13.30etan  
Mondrasport (errep).  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
ATBketan

**16 Astezkena**

13.30etan  
ATBketan (errep)  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Bakarka  
Gonbidatua: Andu Lertxundi

**17 Osteguna**

13.30etan  
Bakarka (errep).  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Ibilixan Dabilena.  
Gonbidatua: Joseba Egibar ber-  
gararra. Argazkilaria amorratua.  
Antartidan bakarrik egon zenean  
ateratuko argazki zoragarriak  
erakutsiko dizkigu.  
Erreportaia: Espeleologia:  
Arrasateko Espeleologi taldearen  
laguntzaz egindako erreportaia  
bikaina.

**18 Ostirala**

13.30etan  
Ibilixan Dabilena (errep).  
19.15etan  
Marrakzi Bizidunak  
19.50etan  
Kukaratz Motel  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Astebete Xabier Ibarzabalek  
aurkeztua.  
22.00etan  
Marrakzi Bizidunak

## • SOLUZIOAK •

Horizontalak: 1. Itaki. 6. Te. 8.  
Tatarrez. 10. NA. 11. Emari. 12.  
Uda. 14. Adi. 15. Nuhitar. 18.  
Osein. 19. Ordu. 20. Kae.  
Berkalak: 1. Itandu. 2. Nandu. 3.  
Ar. 4. Kar. 5. Irtis. 6. Temata. 7.  
EZE. 9. Keadar. 13. Alor. 16. Ito. 17.  
Ene.  
Jeroñifikoa:

Eibar.

**Etxebizitzak**

- **Pisua salgai** Okendo kalean, 1 - 5º A. Tfnoa: 79 94 36. Arratsaldezu deitu.
- **Pisu bat daukat alokagai.** 4-5 pertsonentzat. Erdikaldean. Tfnoa: 79 18 03.
- **Garaje bat alokagai** Roneon. Tfnoa: 79 36 09.
- **Garajea salgai** Atxabaltan. Tfnoa: 79 29 19.
- **Bi kotxe gordetzeko garajea** alokatzen da (Roneon) Tfnoa: 79 77 13. Dei ezazue gaueko 9etatik aurrera.
- **Erdiko kalean pisu on bat** alokatzen da, 4 edo 5 pertsonentzako. Dei egin 77 03 38 / 79 18 03 Tfnoetara.
- **Pisu bat erosi edo alokatuko** nuke. Tfnoa: 79 31 25.
- **Pisu bat osatzeko** mutil bat behar dugu Bilbon. Prezioa: 13.500pta. Tfnoa: 79 49 18. Gorka.
- **Famili baten etxean** 2 ohedun logela alokagai. Eskola Politeknikoaren ondoan. Tfnoa: 79 40 53.
- **Arrasaten neska bat behar dugu** pisua osatzeko. Prezioa 9.500 pta. hilero. Deitu 79 70 77 tfnora (Aintzane).

**Lana**

- **Emakumea** eskaintzen da etxeko garbitasunak egiteko eta umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 31 58.
- **Neska etxeko lanak egiteko** gertu. Esperientzia daukat. Tfnoa: 79 93 17.
- **28 urteko neska esperientziaduna** eskaintzen da etxeko garbitasunak egiteko, haurrak zaintzeko edota dendari lanak egiteko. Tfnoa: 79 95 92 (Pili).

- **Klase partikularrak ematen dira:** latina, gaztelera, euskara, ingelesa,...Maila guztiak. OHO, BO, GB, BBB, UBI.... Esperientziadun lizentziatua. Tfnoak: 77 04 07 (6040).
- **Zure etxeko lanak** egiteko prest nago (esperientzia daukat). Tfnoa: 79 93 17.
- **Neska umeak zaindu edo etxeko garbiketarako** egiteko prest egongo litzateke, goizeko 8'30etatik eguerdiko 3ak arte. Tfnoa: 78 71 38. Noelia.
- **Marraskia teknikorako irakaslea** behar dut. Tfnoa: (94-682 02 60).
- **Gaixo edo/eta adineko pertsonak** zaintzen ditut. Tfnoa: 945-17 07 28. Bautis.
- **Irakasle bat behar da** UBliko mailako euskara emateko. Tfnoa: 79 06 24. (Arratsaldeko 8etatik aurrera deitu).
- **Klase partikularrak ematen dira:** kontabilitatea, estatistika, ekonomia, OHO eta UBI. Tfnoa: 77 04 82. Amparo. Esperientziaduna.
- **Umeak zaindu edo etxeko lanak** egingo nituzke. Baita garbitasun lanak orduka ere, taberna, etxe edo jatetxeetan. Tfnoa: 79 96 10. Maritxu.
- **Klase partikularrak.** Ingelesa. Esperientziaduna. Tfnoa: 79 21 56. Edurne.
- **Klase partikularrak ematen dira:** latina, gaztelera, euskara, ingelesa. Maila guztiak: OHO, BO, GB, BBB, UBI.... Esperientziadun lizentziatua. Tfnoa: 77 04 07. (Goyo).
- **Pertsona bat behar da** UB mailako euskarazko klaseak emateko. Tfnoa: 79 06 24. Arratsaldeko 8etatik aurrera.
- **Informatikako klaseak ematen dira.** Soinua, sistema eragileak eta grafikoak. Tfnoa: 77 02 59. Iker.
- **Sasoiko emakumea** ume edo pertsona helduak zaintzeko prest. Deitu 79 23 54 tfnora.
- **Frantsesezko mintza praktikako klaseak** jasoko nituzke. Tfnoa: 79 22 13.

**Salerosketak**

- **100 litrotako termoa salgai.** Egoera onean dago. Tfnoa: 79 07 73.
- **Pinuzko atek salgai.** Estrenatu gabe. Tfnoa: 79 25 20.
- **Bigarren eskuko ordenagailu bat** erosiko nuke. Tfnoa: 77 04 98. Irene (Bulego orduetan).
- **150 litrotako ur berogailua salgai.** Oso egoera onean eta merke. Tfnoa: 78 33 09. (Ainhua).

**Denetarik**

- **Urrezko pultsera aurkitu dut** Lorategi taberna ondoan. Jesus izena darama. Tfnoa: 79 41 48.
- **Urriak 22 larunbatean,** betaurrekoak galdu zitzaizkidan, kaxa beltz batetan, Sebero eta Uribe artean. Aurkitzen badituzu deitu 79 37 87 tfnora.
- **ADI GASTEIZKO ARRASATEARROK** Datorren azaroaren 26-an, larunbata, Gasteizen bazkari bat egin behar dugu. Informazio gehiago 945-26 24 74 eta 945-22 34 97 tfnoetan.
- **Eguzkirako betaurreko** marroiak galdu ditut, urriaren 23an, "Ceciaga" eta Grupo San Juan arteko bidean. Aurkitu badituzu, mesedez ARRASATE PRESS-era eraman.
- **15 egun dela,** urrezko eskuturreko bat galdu nuen. Aurkitu baduzu, 77 14 55 tfnora dei egin. (Miriam).
- **Deustun goizez ikasten bazabiltza** eta kotxez joan nahi izan ezkerro, badaukagu lekua. Tfnoa: 79 51 57.
- **Urrezko eraztuna** galdu dut Arimazuri eta Lagun-Aro inguruan. Opari berezi bat da eta aurkitu duenari eskertuko nioke dei egitea. Tfnoa: 945-28 67 44. Bego.

**Aste Gazte**

**Lana**

- Getxoko Udalak, lanpostu hauen deia egin du: sei operari, bi administrari laguntzaile, gizarte laguntzaile bat eta sei udaltzain. Epea: azaroak 14.
- Ugao-Miraballeseko Udalak, lanpostu honen berri eman du: Liburutegiko laguntzailea eta euskara itzultzailea. Betekizunak: eskola graduatua eta EGA titulua. Epea: azaroak 15.

**Bekak**

- Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAP), Herri-Administrazioari buruzko doktore-tesiak egi-

teko bost laguntzatarako deia egin du. Epea: azaroak 15.

- 95eko udan alemana ikasteko bekak, Alemaniako unibertsitate batean. Betebeharrak: 19-32 urte bitarteko adina, alemaniera ezagutzea eta karrerako bi urte gutxienez gaudituta izatea. Epea: azaroak 25.

**Ikastaroak**

- Argazkigintza II. mailako ikastaroa (errebelatua koloretan, besteak beste) azarotik-abendura, astearte eta ostegunetan, arratsaldeko 7etatik 9etara. Matrikula: 3.000 pta (1.500 pta ikasle eta langabe-tuentzat).

**Lehiaketak**


- "Giza-Eskubideak/Derechos Humanos 1994" izenburua duen idazketa, pintura eta argazki lehiaketan Euskal Autonomi Elkarte herri ikastetxeetako edo ikastetxe pribatuetakoko OHO (goi ziklo), BBB, IEE eta LHko ikastalderi zuzendua dago. Epea: azaroak 18.
- Muskizko Udalak, XII. pintura lehiaketaren deia egin du. Edonork har dezake parte, azken bi alditan sarituak izan direnak izan ezik. Teknika librea. Epea: azaroak 18.
- Gordexolako Kulturetxeko VII. Ipuin Lehiaketa. 16-30 urte bitarteko edonork har dezake parte. Gaia librea. Epea: azaroak 25.

**"Guk ez ditugu gure semeak intsumiso bihurtu, beraiek geu bihurtu gaituzte intsumisok".**

**OBJETORE-INTSUMISO AMEN ELKARTEA (SAL ALDIZKARIA)**



**Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65**



# Arrasateko OSASUN GIDA

## ALBAITARIAK

ALTAMIRA KLINIKA J.L. Iñarra, 24-Behea ..... ☎797489  
 ZARUGALDE KLINIKA Zarugalde, 25 behea (24ordutan) ..... ☎791531

## DENTISTAK

ADUR MEDIKU INSTITUTU ODONTOLOGIKOA Iturriotz 35 ..... ☎799560  
 ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz 17,1 Ezk..... ☎797223  
 DENTAL-ZURI (Lagun-Aro, Osakidetzako haur programa) Arrasate Pasealekua, 33..... ☎770136  
 GIPIZKOA ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETAKO ZENTRUA Iturriotz 7 Bis..... ☎797388  
 IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz 7, 1º..... ☎796945  
 LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3 1.-B ..... ☎771263

## DIETETIKA ETA NUTRIZIOA

MARIBI SERRANO Kalealdea, 11- behea ..... ☎796578  
 KONTSULTA MEDIKU-DIETETIKOA (BETI-ONA GIMNASIOA) Uribarri Etorbidea, 12 ..... ☎770067

## FISIOTERAPEUTAK

ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEIA ERREHABILITAZIO ZENTRUA Olarte 43 Bis ..... ☎770396

## GINEKOLOGOAK

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA Zerkaosteta, 17-Behea ..... ☎792018

## LOGOPEDIA

ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Zurgin Kantoi 3-Esk ..... ☎797946

## MASAIARIAK

IOSU ARANZABAL Dr. Bañez 10, 1º..... ☎791818  
 J.CRUIZ ZABALOA AZKOAGA (Kiromasaia) Jose M. Eguren 4-Behea ..... ☎795638

## MEDIKU-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ..... ☎794422

## OPTIKA

ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6 ..... ☎792598  
 GARAGORRI OPTIKA (Optika eta optometria) Iturriotz 29..... ☎791698

## PODOLOGOAK

BARRUTIABENGOA URANGA Pablo Uranga, 6 ..... ☎795075

## PSIKOLOGOAK

NUÑEZ MONREAL Olarte, 10 ..... ☎798816  
 PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia) Ignacio Zuloaga 10 ..... ☎794877

## REUMATOLOGIA -BIZKARREZURTERAPIA

GOROSARRI -TROJAOLA DReak. Zaldibar ..... ☎770040

**OSASUN GIDARAKO IZENEMATEA: 77 08 15**

uff!  
**ALTZARI MERKEAK**  
goian bildu ditu



**centro**  
**hogar**  
**MUEBLES**

garantiaz



**Amuebladora**  
**Mondragonesa**

sartzen dena:  
zeuk behar dituzun altzariak

**ARRASATEKO BARIANTEAN**